

**Herririk Herri** |2|

Euskal Harley jaiaren barruan motor akrobaziak ikusgai Ezkurdiko plazan



**Berbaz** |8|

Rosa Trinidad: "Normalean gizarteak ez gaitu istripuetako biktimak ulertzen"

**Kultura** |11|

Begira argazki topaketan parte hartuko dute Arruabarrenak eta Angoitiak

## Ez dute berriz Urkiolako Igoerarik antolatuko

> Zaleen portaera desegokia dela-eta, erabaki hori hartu du Durangalde Racing elkarteak

> Orain lau urte berreskuratu zuten autoen lasterketa ezaguna, arrakasta handiz

18



Kepa Aginako

**Auzonalean egindako Abadiño**ko toponimia liburua aurkeztu dute

**Abadiño** • Hamabost urtean 200 herritar baino gehiagoren ekarpenak jasota, *Abadiño*ko toponimia; ahozko iturburuak, iturri dokumentala eta bibliografi-

koak izeneko liburua asteon aurkeztu dute Traña-Matienako Errota kultur etxean. Ekitaldian izan ziren Mila Salterain proiektuko koordinatzailea eta Euskal-

tzaindiko ordezkariak. Liburua-gaz batera egindako mapa toponimikoan kokatu dituzte 800 toponimoren idazkera, ahoskera eta koordinadak.

7

• **Elorrio**

Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute astelehen honetan

4

• **Durangaldea**

Suminduen Martxak eskualdeko hainbat herri zeharkatu ditu

6

• **Durango**

Fundifesen indarrez hildako andrearen heriotza salatu dute

2

• **Iurreta**

Zuzendaritza eta beharginak ados jarri dira Odi-bakarren

3

# DIO

Zengotitabengoa • **BERRIZ** ☎ 94 682 42 15

Jaietan ondo pasatzeko prezio merkeenak

# HERRIRIK HERRI >

**DURANGO**

## Motorzaleek Euskal Harley jaia egingo dute asteburuan

Nazioartetik etorritako 300 lagun inguru batuko da asteburuko ekitaldian



Apurka-apurka izena hartzen dabil Durangoko motorzaleen jaia. Kepa Aginako

**D**urangota bere inguru eta motorhotsa helduko da gaur. Izan ere, Euskal Harley motorzaleen jaiak hirugarren edizioa ospatuko du asteburuan. Motorzaleen bilgunea Landako gunea izango da, eta bertan erakusketak, motor transformatzailerak, aerografia, jolasak, kontzertuak... izango dituzte.

Landakoko ekitaldiez gainera, Durangoko kaleetan zabaldu-

ko da jaia. Zapatuan, esaterako, 20:00etan motorrak akrobaziak egingo dituzte Ezkurdiko plazan; 22:00etan, berriz, antortxekin egingo dute ibilbidea herrian, hildako motorzaleen omenez. Zapatuan Urkiola eta Arratian zehar ibilbi-

**Erakusketak, jolasak, kontzertuak eta irteerak edukiko dituzte motorzaleek**

dea egingo dute, eta domekan, berriz, Arrazolara joango dira.

**Motorrak, nork bere gustura** Urtero legez, motorrak eraldatzen dituztenen erakustaldia egingo dute Landakon. Gainera, eraldatzaileek urteroko batzarra egingo dute. Pinturagaz, aerografia teknikagaz behar egiten duen Juan Azurmendi durangarra ere egingo da Euskal Harleyn. ■ A.Ugalde.

## Fundifesen indarrez hildako andrearen heriotza salatzen dute

Andreak-ek gizartearen berreziketan lan egiteko premia nabarmendu du

Astelehenean elkarrateratzea egin zuten Durangoko udaletxe azpian, ekainaren 16an Fundifesen hildako emakumearen heriotza salatzen. Hainbat herritar, udal ordezkari eta parekidetasun arloan behar egiten duten pertsona batu zen elkarratarazera.

Hasieran emakumeak bere buruaz beste egin zuela zabaldu zen arren, heriotza ikertzen hasi eta 31 urteko emakumearen biko-

tekidea atxilotu zuen Ertzaintzak joan zen martitzenean, "badaezpadako" neurri moduan. Eguenean, berriz, epailearen aurrera eroan zuten eta gizonezkoa kartzelaratzeko agindua eman zuten.

**Fundifesen hil zen andrearen bikotekidea kartzelaratu egin zuten joan zen egunean**

Andreak Durangoko indarkeri matxistaren kontrako elkarrekin herrian indarkeria mota honengatik bi emakume hil direla gogoratu du: "Herri gutxi dute marka makabroa da". Gizartearen berreziketan behar egiteko premia nabarmendu du, batez ere, gazteengan: "Esperientziak dioskunez, indarkeria patrioiak belau-naldiz belaualdi errepikatzen dabilta". ■ A.B./A.U.



Astelehenean hainbat lagun batu zen hilketa salatzen. Kepa Aginako

## Alderdien liberatuak mantenduko dituzte

EUDELegaz duela lau urte egindako akordioaren baitan, 56.800 euro gordin kobratuko dute

Asteon egindako udalbatza udaleko batzordeak eratu dituzte eta alderdiek liberatu bana edukitze-ko aukera onartu dute Durangoko Udalean. Liberatu horiek EUDELegaz adostutako 56.832,50 euroko soldata izango lukete.

Aralarrek eta Bilduk neurri horren kontra bozkatu dute. Aralarrek soldata administrazio laguntzaile baten soldatagaz partekatzea proposatu du; 34.100 euro. Bilduk liberazioen kontra egin du, euskara eta kultura arloetan baino diru gehiago gastatzen delako soldatetan; "norberak bere talde politikoarentzat herriaren diruagaz behar egiteko".

EAJko Goiztidi Diazek liberatua edukitzea edo ez alderdi

bakoitzak erabaki behar duela gogoratu du: "Liberatua izateak ez du esan gura lan hobeto egingo denik, eta 'herririk nator, herriarentzat lan egitera' esateak ere ez".

**Parte-hartze Batzordea**

Lan batzordeek hamarna kide zituzten lehenago, eta legegintzaldi honetan hamaika izango dituzte. Aurreko batzordeek jarraituko dute lanean, eta Garapen Iraunkorraren Batzordean herriarren parte hartzea ere landuko dute. Neurria PSE-EEren proposamena izan dela azaldu du Pilar Riosek: "Herriarren parte-hartzea zeharka alor guztietan landu behar da, aurrekontu parte-hartzaileak jorratzeko". ■ A.U.

## ONAKo 8 aurrejubilatuen soldata barik daude

Ordaindu behar lieken aseguru-etxea porrot egoeran dago, eta urtarrietik ez dute kobratu

Aurrejubilazio kontratua 2008an sinatu zuten ONAKo zortzi langilek ez dute jaso beharreko dirua jaso azken sei hileetan. Legeak arautzen duenez, aseguru-etxe bat arduratu da ordura arte diru hori ordaintzeaz, baina aurtengo urtarrietik kiebra egoeran dago.

Belgikako Apra Leven NV aseguru-etxea da momentu honetan likidazioan dagoena. Hainbat

**Aurrejubilatuek ONAri zorra ordaintzeko eskatu diote. Hori aseguru-etxearen betebeharra dela dio zuzendaritzak**

enpresa eta erakundegaz behar egin du aseguru-etxe horrek, eta 3.000 aurrejubilatuen daude ONAKo zortzi aurrejubilatuen egoera berean.

Aurrejubilatuek ONAKo zuzendaritzari zor zaiena ordaintzeko eskatu diote, eta asteotan elkarretaratzeak egin dituzte horretarako. Euren berbetan, "Onak ordainketa ziurtatu zuen eurekin sinatutako kontratuan". ONAKo zuzendaritzak zorra aseguru-etxeak ordaindu behar duela adierazi du, eta eurek aseguru-etxeari "ordaindu beharrekoa" ordaindu ziotela. ■ A.U.

**MALLABIA**

## Asteon hasi dira herriko udalekuak 40 gaztetxogaz

Asteon hasi eta uztailearen 21era arte Mallabiko udalekuan parte hartuko dute 4tik 11 urtera bitarteko 40 gaztetxok. Sei begirale ibiliko dira gaztetxoekin astelehenean eguenera, 10:00etatik 13:30era. Herrian hainbat ekintza egingo dituzte, eta kanpora ere irtengo dira.

Egunpasei dagokionez, nagusienak Arantzazuko Urbiara joango dira udalekuetako egun batean,

eta hango inguruak ezagutuko dituzte. Gazteenek, berriz, Olenzeroren Etxea bisitatuko dute Mungia Izenaduba basoan.

Herriko ekimenei dagokionez, asteon behin igerilekuetara joango dira, eta egunean toki batean elkartuko dira: Surrotoki lokalean, Jolaslekun edo Mallabia I pilotalekuan, besteak beste. Barruko zein kanpoko ekintzak egingo dituzte, beraz. ■ J.D.



ATXONDO

## Gazte Eguna bihar, Atxondoko Gaztiok taldeak antolatuta

Kostaldeko herria emango du bihar Atxondok. Sanpedroak aurrera doaz, eta biharko Gazte Eguna mozorro eguna izango da: 'hondartza' aukeratu dute gai moduan. Atxondoko Gaztiok taldeak antolatu ditu biharko ekitaldiak. Sortu berri den taldea da berau, eta, taldeko kideek azaldu dutenez, euren asmoa "gazteek modu kolektiboan herrian parte hartzea" da.

Eguerdiko 13:00etan Gaztetxetik poteoa abiatuko dute, eta eguerdian herri osoarentzat paela jana egongo da frontoian. Bazkaritarako 120 pertsona inguru elkartzera itxaroten dute.

Arratsaldean, 18:30ean, Motxallaband elektrotxararangekin ibiliko dira poteoan, eta gauean musikaren txanda izango da. Gaztetxean Gazte Itzala, Zarraparra eta Gozo-gozo taldeek joko dute, eta plazan erromeria egingo dute. Gauerdian suak eta errepresaliatu politikoen aldeko kalejira izango dituzte. ■ A.U.

**Atxondoko Gaztiok talde sortu berria da, eta jai egitarauan parte hartu du**

IURRETA

## Udalak mantendu egingo ditu lehengo bost batzordeak

EB-Berdeen zinegotzi izan zen Zubillaga gogoratu dute osoko bilkuran

Hirigintza, Jaurpidea, Kultura, Ongizatea eta Ogasuna. Orain arteko bost batzordeei eutsiko die Udalak, eta proportzionaltasuna mantenduz, bakoitzean ordezkari bina izango dituzte EAJk zein Bilduk eta bana PSE-EE zein PPK; batzorde bakoi-tzari dagokio burua aukeratzea.

Hile birik behin barik, hileko azken eguaztenero izango dira ohiko bilkurak, 19:00etan. Aman-komunazgoan, berriz, hiru ordezkari izango ditu Iurretak: Iñaki Totorikaguena alkatea-alkateordeak Ainhoa Albizuri eta Iñaki Gil izango dira- eta Iñaki Gil EAJkoak eta Mikel Zenikaonandia

Bildukoa. Kontratazio-mahaian guztiek dute ordezkari bat.

PPko Nacho Tocakaldibereko itzulpena eskatuta alkateakesan du kostua dela-eta "ahal den moduan konpondu beharko" direla. Minutu bateko isilunea gorde dute, bestalde, EB-Berdeen zinegotzi J. L. Zubillagaren omenez. ■ A.B.

## Urratsbat lehiaketan sarituak

Ikasle eta ikasle-ohien arteko enpresa egitasmoen tutorizazio pertsonalizatuaren Urratsbat Egitasmoaren eskutik saria lortu du Iurreta Institutuak. Urratsbat lehiaketan EAEEK ekintzaile onenen 2. saria lortu dute M<sup>a</sup> Victoria eta M<sup>a</sup> Luisa Punzano ahizpek. Biak dira ikasle-ohiak eta Pikoteo Etxea sortu zuten 2010eko abenduan. Iaz, Garikoitz Urizar eta Aitor San Romanek 1. saria lortu zuten Astikene Motorregaz. Hiru urtean 8 enpresa sortu dituzte ikasle eta ikasle-ohiek.



Sarituak, institutuko zuzendari eta TKNIKAren zuzendariagaz. I.I.

## Zuzendaritza eta beharginak ados ipini dira Odi-bakarren


Zuzendaritza eta enpresa komitea akordio batera heldu dira Odi-Bakar enpresan: kontratu desegite espediente bertan behera utzi du enpresak, eta langileek mobilizazioak uzti dituzte. "Negoziatutako kaleratzea" onartu dute bederlatzi beharginek; lan-taldean geratuko diren 61 beharginek enplegu-erregulazio espedienteagaz jardungo dute, etenaldiekin.

**"Negoziatutako kaleratzea" onartu egin dute bederlatzi beharginek**

"Eragina txikiagoa izango da, lan-taldearen murrizketa ere emango da-eta. Txarren artean onena da neurri hori. Izan ere, inork borondatez onartutako kaleratze legez saldu dezakeen arren, egoerak bultzatutako borondatezko kaleratzeak dira", nabarmendu du LABeko Xabi Rojasek. Odi-Bakarrek izen-abizenekin aurkeztu zuen 15 langile kaleratzea, ELAk adierazi legez; bederlatzik onartu dute negoziatutako kaleratzea. ■ A.B.

**spa orbea**  
(Eibarko kiroldegia)  
**943 03 00 15**

**Kirol Errotako bazkideek deskontuak izango dituzte**



ELORRIO

# Berrio-Otxoa eguna jai egun Elorrion eta Bizkaia guztian

Durangaldeko XV. Azoka Ekologikoa ospatuko dute San Balentin egunean



Aurten San Inazio eguna domeka denez, Bizkaia osoan izango da jai uztailaren 4a. Kepa Aginako

**T**xistularien kalejiragaz hasiko dute, astelehenean, San Balentin Berrio-Otxoa eguna Elorrion. Ohitura denez, bere izena duen kalea santuaren irudia josita duten izarekin beteko da. Egitarau zabalak prestatu dute astelehenerako. Aurten berezia izango da eguna; San Inazio eguna domeka denez, Bizkaia osoan izango da jai uztailaren 4a.

12:00etan meza nagusia izango da Sortzez Garbiaren Basilikan,

eta Mario Izeta gotzaina etorriko da elizkizuna ematera. 13:30 aldera, Berrio-Otxoa kalean luntxa ipiniko dute, eta A Magnifique Banderen musika ekitaldia egongo da. Arratsaldean afizionatuen pilota

**Bizkaiko gotzainak emango du 12:00etako meza, eta gero luntxa eskainiko dute Berrio-Otxoa kalean**

partidak jokatu dituzte plaza-ko frontoian, 17:00etan. Eguna amaitzeko, Musikaire jaialdiko ekitaldia dago Niño Costrinagaz.

**Azoka Ekologikoa**

Goizean, Elorrixa ekologia elkarrekin antolatuta, Durangaldeko XV. Azoka Ekologikoa egingo dute, eskualdeko eta Bizkaia osoko nekazarien postuekin. Azoka Ekologikoa San Pio kalean ipiniko dute, plaza ondoan. ■ A.Ugalde

## Batzokia berrinauguratu zuten domekan

EAJko hainbat jarraitzaile batu zen domekan Batzokiaren berrinaugurazioan. Ekitaldian Ana Otadui alkateak eta EBBko lehendakari Iñigo Urkulluk egin zuten berba. Andoni Ortuzar BBBko lehendakaria eta Jose Antonio Ardanza ere bertaratu ziren.

Urkulluk Patxi Lopezen gainean egin zuen berba: "Maiatzaren 22tik zain gaude noiz esango ote dion euskal gizarteari hautesleriaren %30era heltzen ez diren alderdiek gobernatzea dela bere normaltasuna". ■ J.D./A.U.



Hainbat hiletako lanen ondoren ireki dute Batzokia. J.R.de la Cruz

Asteleheneko meza ostean bazkaritarako ohitura daukate Balentin Berrio-Otxoa santuaren kofradiko kideek. Guztira, 140 pertsona inguru elkartuko direla azaldu digu Jesus Mari Agirre kofradiako lehendakariak. Berrio-Otxoaren bizitzaren berri emateko sortu zuten kofradia duela hamar urte.



**JESUS MARI AGIRRE**  
Balentin Berriotxoa santuaren kofradiko lehendakaria

**Noiz sortu zen kofradia eta zer helburugaz?**

2001ean sortu genuen. Beste leku batzuetan kofradiak zuedela ikusi genuen –adibidez, San Inazioarena–, eta pentsatu genuen ea zergatik ez hemen. San Balendinen irudiari indarra emateko helburugaz sortu genuen kofradia. Munduan bere irudia zabaldu gura dugu, eta horretarako, zelan ez, etxetik hasi behar.

**Zelako ekintzak egiten dituzue kofradian?**

Berrio-Otxoaren ibilbidetik ikusi eta ikasi gura dugu, eta bere bizimodua ezagutarazi. Buruan gauza asko daukagu. Eliza atzean dagoen eskultura konpondu gura dugu, oso hondatuta dagoelako. Berrio-Otxoa abesbatza eta parrokiako koruagaz disko bat grabatzeko proiektua daukagu, Berrio-Otxoari buruz dauden abestiekin. Sei edo zazpi dau-

de batuta, Enbeitaren bertso sortak eta Don Claudio Gallastegiren abestiak tartean.

**Uztailaren 4a Bizkaia osoan jai eguna izango da aurten. Horrela behar luke beti?**

Gure asmoa noiz edo noiz San Balendin Bizkaiko zaindaria izendatzea da. Orain bigarren patroia da, San Inazioaren atzetik. Karmelo Etxenagusiak Erroman zer edo zer mugitu zuen bere garaian, baina oso gaitza izan behar da zaindaria bat dagoenean hura beste bategatik aldatzea. Karmelo Etxenagusiak azaldu zuenez, baldintza oso zehatz batzuk bete behar dira; zaindaria hori ez zela existitu edo ez zela hain eredu garria izan frogatu behar-ko litzateke, adibidez. ■ A.U.

MAÑARIA

## Gobernuak funtzionatzeko modua aldatzea gura du

Uztailaren 7an, 19:00etarako deitu dute udaleko batzordeak eratu, diru-kopuruak ezarri eta plenoen maiztasuna zehazteko udalbatzarra. Udal gobernuak Bildu alderdiaren proposamenak honako batzordeak jasotzen ditu, Gobernazio, Kontratazio eta Diru Kontuen derrigorrezko Batzordeez gainera: Kultura, Euskara eta Kirolak; Ingurumena (berria litzatekeena); eta Industria eta Hirigintza. Batzordeetako ordezkarien diru-saria 40 eurotik 20ra jaistea ere proposatuko dute.

Hilean behingo maiztasuna ezarri nahi du Bilduko gobernu taldeak ohiko bilkuretarako: hileko lehenengo barikuan, 19:00etan gura dituzte finkatu udalbatzar-rrak. Pleno bakoitzeko, alkateak jasotzen zuen 250 euroko asignazioa eta zinegotzi bakoitzaren 150ekoa kentzea ere proposatuko dute. ■ I.E.

**Hileko lehenengo barikuan, 19:00etan finkatu gura dute ohiko bilkuretarako eguna**

*uztailak 4*

Goizean zehar **erdigunean**, kalejira: Elorrioko Txistulariak  
Goizean zehar **San Pio kalean**, azoka: Durangaldeko Azoka Ekologikoa


12:00 **Sortzez Garbiaren Basilikan**, meza nagusia: Korporazioa eta Elorrioko Txistulariak Udaletxetik Basilikara joango dira eta meza nagusia izango da Sorkunde Guztiz Garbia abesbatzaren parte-hartzearekin

13:30 **Berrio-Otxoa kalean**, luntxa eta animazioa: A Magnifique Bandek animatutako ekitaldia

17:00 **Plazako frontoian** Afizionatu mailako pilota partidak

19:30 **Herriko Plazan**, animazioa: Niño Costrini (Musikaire)

**BERRIO-OTXOA 2011**



# BAUTISTAN BI LAGUNENTZAKO EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARITZEN JARRAITZEN DUGU **OPARIA ZUZENEAN**

## 1.900 EUROKO GUTXIENeko EROSKETAGATIK

Bautistan inoiz ez genizuke ezer oparituko lehenago geuk probatu barik. Zure lekuan geu joan gara sasoiko lehenengo itsas bidaiara: BARTZELONA-TOULON-SARDINIA-BARTZELONA eta ziurtatu egiten dizugu esperientzia **ZORAGARRIA** izan dela **ZATOK ETA FROGATU EGIZU**

Jon Ugarte  
Bautista altzariak eta dekorazioa



Eguzki sartzea. Sardiniatik irteten. 2011ko apirilaren 2a. 20:00.



Popako haurtzaindegia. Bartzelonatik irteten. 2011ko martxoaren 31. 18:00.



**BAUTISTA**  
MUEBLES Y DECORACIÓN  
LAUDIO - ABADIÑO

IBERO cruceros-en laguntzarekin:



Zurekin ospatu gura dugu gura 40. urteurrena eta harritu egin gura zaitugu.

**EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAKO  
BETIDANIK BEREIZTU IZAN GAITUEN ARGITASUNAREKIN.**

[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)

 **94 672 77 00**

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

Itsas bidaiak kopuru jakin bat amaitu artekok eskaintza. Instalakuntza libreko elektrotresnen erosketak ez da baliagarria eskaintza honetarako

DURANGALDEA

# Eskualdetik pasatu da Suminduen Martxa asteon

Durangotik Urkiolara eta bertatik Otxandiora jo dute hiru etapatan

**M**artitzen arratsaldean heldu zen Durangora Bilbon irten eta Madrilera bidean doan Suminduen Martxa. Andra Maria elizpean batu ziren martxako kideak Durango eta Ermuko asanbladekin, eta eguaztenean Urkiolan gora egin zuten. Eguenean, berriz, Otxandiora. Madrilera bidean hiru etapa izan ditu Durangaldean Suminduen Martxa.

Lehenengo egunetako beroaren ondoren, Durangaldean freskotasuna topatu zuten martxako

kideek. Gogorrenak lehenengo egunak izan zirela zioten, orduz gero "gorputza ohituta" zeukate. Helmugara heltzeko asmoa du parte-hartzaile askok: "Madrilera heltzerakoan Euroaren Ituna sinatzekotan egongo dira, eta presioa egitea da asmoa". Hilaren 22an helduko da martxa Madrilera.

**Ermua eta Durangoko asanbladetako kideek egin zieten ondoetorria**

**Greziari elkartasuna**

*Grezia ez zaude bakarrik* lema irakurri zitekeen Andra Marian. Egunotan greziarrei elkartasuna adierazteko ekimena hasi du Maiatzaren 15eko mugimenduak. Greziako bandera edo aipatutako lema hori euskaraz eta grekoz idatzi eta balikoetan jartzeko deia egin dute.

**Durangoko asanblada**

Joan zen barikuan egin zuten lehen herri-asanblada Durangon. Aurreantzean barikuro 20:30ean batu ko dira elizpean. ■ A. Ugalde



Durangon geldialdia egin zuten eta gauean Iñurriren lokaletan lo egin. Kepa Aginako.

OTXANDIO

## Barnetegi ibiltaria helduko da asteburuan

AEKren barnetegi zapatuan ailegatuko da eta domekan etapa berria hasiko du herrian bertan

AEK-k barnetegi ibiltariak antolatu ditu aurten ere, eta Otxandion geldialdia egingo dute. Bi irteera eratu dituzte, bata oinez eta bestea bizikletaz. Asteburu honetan oinezkoa igaroko da herritik. Zapatuan Murgian irten eta Otxandion

**Euskaraz bizitzea eta Euskal Herria hobeto ezagutzeko dute helburu barnetegiok**

amaituko dute lehenengo etapa. Bigarren, Otxandiotik Leintz-Gatzagaraino joango dira, Anbototik pasatuz. 15 eguneko ibilaldiaren ondoren, Izaban amaituko dute, uztailearen 17an, Hiru Erregeen Mahaiko tontorra zapaldu eta gero. Egunean 20-25 kilometro bitartean egingo dituzte.

Bestalde, uztailearen 30ean ekingo diote bigarren saioari, bizikletaz. Urduñatik Zarautzera bidean, hilaren 30ean eta 31n zapalduko dute Otxandio. Euskaraz bizitzea eta Euskal Herria hobeto ezagutzeko dute helburu. ■ M.O.

ZALDIBAR

## Eitzagako jaiak segida izango dute asteburuan

Martitzenean hasi ziren San Pedro jaiak; bihar eta etzi goizetik gauerako egitaraua dute

Martitzen iluntzean, San Pedro bezperan, altxatu zuten donien-atxa Zaldibarko Eitzaga auzoan. Eguaztenean patrioiaren eguna ospatu zuten, meza eta jubilatuentzako afariagaz. Jaia, edozelan ere, ezzen amaitu; bihar eta etzi jarraituko du egitarauak txapelketa, bazkari eta abarrekin.

Bihar 12:30ean paella eta tortilla txapelketei ekingo diete, eta 14:00etan aurkeztuko dituzte jaiak; ondoren, herri-bazkarian elkartuko dira. Arratsaldean, 18:00etan bolo-jokoan ariko dira, eta 19:00etan lehiara pasatuko dira: lehenengo seirek jasoko dute saria; auzoko onenarentzat garai-

kurra ere egongo da. 21:00etako afariagaz amaituko dute eguna.

**Dantzak eta asto-probak** Domekan meza ospatuko dute 12:00etan, eta irtetzerako prest izango dute luntxa. 13:45ean Euskal Dantzak eskainiko ditu Ermuko Txindurri taldeak. 18:00etan asto-proben txanda izango da, eta otzararen zozketa egin ondoren amaituko dute jaiak. ■ M.O.

**Bihar 12:30ean paella eta tortilla txapelketei ekingo diete, 14:00etan aurkezteko**

GARAI

## Dantzaren inguruko proiektzioa egunean

Datorren asteko egunean, uztailearen 7an, *Dantzari dantzaren* gaineko ikus-entzuneke lan bat eskainiko dute Garaiko kultur etxean. Otea-Loran elkarteak antolatu du ekimen hori, *Garain Dantzari-dantzaren inguruan hitzak, irudiak eta doinuak* izenburupean garatuko dena.

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da proiektzioa. Urteetan atzera begiratzeko aukera eskainiko du lan horrek; izan ere, aspaldi batutako argazki eta istorioak jasoko ditu, besteak beste. Garaiko dantzaren inguruko tradizioa hobeto ezagutzeko eskaintza egingo dute, beraz. ■ M.O.

IZURTZA

## Lau kartel jaso dituzte jaietako lehiaketarako

Atzo goizean zehar jaso zituzten jaietako kartel lehiaketarako lau proposamenak. Eguerdiko 13:00ak arte eduki zuten parte hartzaileek lanak aurkezteko aukera, eta epearen azken unean aurkeztu zituzten guztiek lanak.

Udaleko Kultura Batzordeko kideek osaturiko epaimahaiak erabakiko du orain aurkezturikoetatik zer kartelek iragarriko dituen iraileko 2011ko Izurtzako

jaiak. Epaimahaiak lehiaketako irabazle hautatzen duen kartelgiveleak 250 euroko saria jasoko du.

Iaz antolatu zuten lehenengo herriko jaiak iragartzeko kartela hautatzeko lehiaketa, eta Ainhoa Garate otxandiarrak jaso zuen saria. Bost kartel proposamen jaso zituzten iaz, eta jaiaren elkargune nagusia, plaza, eta dantzari biren irudia agertzen dituen kartela aukeratu zuten. ■ I.E.

## Urrezko domina bi lortu ditu Launa upategiak

'Launa Plus' izeneko 2007ko ardoa saritu dute Monaco eta Bruselako lehiaketa banatan



Lehiaketa prestigiotsu bitan lortu dituzte urrezko dominak.

Launa upategiko 'Launa Plus' 2007ko ardoa nazioarteko lehiaketetan izan da saritua. Urrezko dominak irabazi ditu Bruselan eta Monacon.

Ospe handia duen Burdeoseko Château Malartic-Lagravière upategian jaso dute Luxemburgon ospatu den Bruselako Munduko Lehiaketan lorturiko urrezko domina. Guztira, 49 herrialdetako 7.348 ardo parte hartu dute Bruselako lehiaketan. Bertan, 40 herrialdetatik 260 dastatzailek osatu dute epaimahaia.

Bestalde, Launa upategiak, Monacoko Wines and Women of the World 2011 nazioarteko lehia-

ketan beste urrezko domina bat irabazi du. Aipatzekoa da, gainera, urrezko domina jaso duen Errioxa jatorrizko ardo bakarra izan dela 2007ko Launa Plus.

**1978an hasi zuen ibilbidea eta gaur egun Biasterin du Launak upategi berria**

Zazpi belaunalditan ardogintzari lotuta diharduen familiak 1978 urtean hazi zuen bere ibilbidea Arabar Errioxako Eskuernaga herrian. Gaur egun, Biasterin du bere upategi berria. ■ J.D.



## Durangaldean labor

### Uda giroko errotuluak, +Dendaken ekimenez

Abadiño, Iurreta eta Durangoko 197 dendatan uda giroko errotuluak ipini dituzte, urtaruari ongi etorria eman guran. +Dendak elkarrekin bultzatu du ekimen ikusgarri hori.

Kanpaina hori iazko udaberriaren ipini zuten mar txan, eta orduan 50 bat establezimenduk parte hartu zuten. Ekimenaren bigarren aldia ia laubider tu egin dute parte-hartzaile kopurua.

### Renaulten dohaintza Iurreta Institutuari

24 motor eman dizkio Gaurisa-Renaultek Iurreta Institutuari, dohaintzan. Sinatutako akordio hori urteetako lankidetzaren baitan dago jasota. Motor horiek automozioi goi eta erdi mailako ikasleek praktikak egiteko erabiliko dituzte. Tomás Maguregi Iurreta Institutuko zuzendariak eta Renault-Gaurisako gerentea den Alex Rodríguezek sinatu dute akordioa.



### San Martin ermitako jaia, domekan

Mañariko San Martin ermitan ospakizuna izango dute domeka honetan, uztailaren 3an. Goizeko 11:00etan mezan elkartuko dira, eta gero luntxa egongo da prest bertaratzen direnentzat. Azaldu dutenez, Garaitoretik oinezean joango dira ermitaraino, ohiturari jarraituz.

#### ABADIÑO

## Toponimiari buruzko liburua eta mapa aurkeztu dituzte

Errota kultur etxean aurkeztu zuten, eguaztenean, auzolanean burututako lana



Argi Abad zinegotzia, Jose Luis Navarro alkatea eta Jose Inaxio Arrizabalaga euskara teknikaria.

**H**amabost urtean berrehun herritar baino gehiagok Abadiñoko ondare kulturalaren leku izenen berreskurapean egindako ekarpenaren emaitza aurkeztu zuten, eguaztenean, Errota kultur etxean.

Jose Luis Navarro alkateak, Argi Abad euskara zinegotziak, Jose Inaxio Arrizabalaga teknikariak, Mila Salterain proiektuaren koordinatzaileak eta Euskaltzain-

#### Herriko mapan kokatu dituzte 800 toponimoren idazkera, ahozkerak, eta koordenadak

diko hiru ordezkari hartu zuten aurkezpen horretan berba.

Mapa toponimikoa eta *Abadiñoko toponimia—Ahozko iturburuak, iturri dokumentalak eta bibliografikoak*—izenburuko libu-

rua dira "hamarkada bat baino gehiagoan auzolanean egindako lanaren" fruituak.

Herriko mapan kokatu dituzte 800 toponimo: leku izenen, erreka izenen, ondare artistikoaren izenen, desagertutako izenen eta baserri eta etxe izenen idazkera, ahozkerak eta koordenadak jasoz.

Etkez etxe eta artxibategietan 15 urtez jardun dute beharrean, "auzolanean". ■ I.Esteban.

## Plenoen maiztasuna eta batzorde banaketa

Ohiko bilkura hilean behin egiten jarraituko dute

Legegintzaldi berriaren udalaren jardueraren ordenatuko duen arloko batzordeen izendapena eta eraketa adostu zuten, atzo goizean, udalean. Aho batez onartu zuten, besteak beste, Jose Luis

**Jose Luis Navarro alkatearen jardueraren eskusiboa aho batez onartu zuten hiru alderdiek**

Navarro alkatearen jardueraren eskusiboa izatea, eta Bilduk proposatu zuen moduan, "gardentasuna" helburu hartuta, udabaltzarren ohiko bilkuretarako hilean behin go maiztasuna mantentzea.

Berrantolatuta egin zituzten arloko udal batzordeetako batzuk, eta bederatzi izendatu. Erakunde publikoetan Abadiñoko Udala ordezkatu duten zinegotziak ere izendatu zituzten atzoko plenoan. ■ I.E.

#### BERRIZ

## 'Letren lorategia' ekimena, uztailaren 5ean hasita

Liburutegi ibiltaria izango da udalak eratuakoa

Uztailaren 5ean kalera aterako dute liburutegia, *Letren lorategia* ekimenaren bidez. Martitzenean hasita, uztailaren 6, 7, 8 eta 11n jarraituko du eskaintzak. Goiz eta arratsaldean izango da, gainera: goizetan 11:30etik 13:30era eta arratsaldetan 16:30etik 19:30era.

Liburutegi eta mailegu zerbitzua eskainiko du zerbitzu honek, eta, horretaz gainera, haurrentzako jolasak, tailerrak, margotzeko txokoa eta mahai-jokoak ere egokituko dituzte bertan. Gurasoentzako mahaiak ere ipiniko dituzte. ■ M.O.

## IURRETAKO UDALERRIKO ENPRESA-PROIEKTUEN III. LEHIAKETARAKO DEIALDIA



**Helburua:** Iurretako herrigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatzea eta bidea erraztea norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hasia erabaki dutenei.

**Oinarriak:** Lehiaketaren oinarriak Iurretako udaletxean edo Udalaren webgunean eskura daitezke.

**Proiektuak aurkezteko:** 2011ko uztailaren 1etik urriaren 30era bitartean, Udaleko bukegoetan (Bidebarrieta 5).

**Saria:** 9000 €.

**Tel.: 94 620 12 00 • www.iurreta.net**



## BERBAZ&gt;

# “Senide bat istripuan galdu dutenek hari buruz berba egiteko premia dute”

Stop Accidentes elkarteak istripuetako biktimei psikologia zerbitzua eskaintzen die, Pinondon duen lokalean



## Rosa Trinidad eta Mainer del Rio •

- Trinidad Stop Accidentes elkarteako EAEko delegatua da
- Del Rio psikologoa da

**I**stripuetako biktimei **psikologia zerbitzua ematen lau hile daramatza Stop Accidentes elkarteak. Familiako norbait istripuz galdu duten pertsonak elkar entzuteko premia dutela nabarmendu dute.**

*Zer laguntzaren eske gerturazten da jendea zuengana?*

**Mainer del Rio:** Duela gutxi gertatutako istripuetako eta duela asko gertatutakoetako kasuak dauzkagu. Kasurik zaharrena duela 22 urte gertatutako istripu batekoa izango da. Istripua jazo eta gutxira, arreta psikologikoa jaso zuen emakume hark; denbora pasatu eta gero babes hori falta izaten da. Biktimek dolua pasatzeko antzeko egoeran dagoen jendeagaz berba egitea behar izaten dute, eurek elkar ulertu egiten dutelako.

**Rosa Trinidad:** Bizi duenak ulertu egingo zaitu. Orokorrean gizarteak ez gaitu biktimek ulertzen. Jendeak pentsatzen du denbora pasatuta onartu egin behar duzula

maite zenuen hori ez dela gehiago bueltatuko. Eta, gainera, ez duzula berari buruz berba egin behar pentsatzen dute; eta ez, hori ez da horrela. Batzuetan biktimek gertukoek ere terapia egin beharko luketela uste dut, ez dakitela sufritzen dabilena zelan tratatu. Hil dena fisikoki ez da egongo, baina bizirik egon

**“Antzeko egoera bizi dutenekin berba egiteak on egiten die biktimei; ulertuak sentitzen dira”**

behar da gure oroitzapenetan, gure bizitzaren parte izan delako eta ez dugulako ahaztu gura. Berba egite hori doluaren parte da.

*Doluaren prozesuan etapak egoten dira?*

**M.R.:** Hasieran jendeak ezin du sinestu. Guztiz desorientatuta egon daitezke egunetan, asteetan eta batzuetan hiletan ere bai. Lehen urtea gogorrena izaten da, denetarako lehen urtea delako; hildakoa bako lehen Gabonak,

bere urtebetetzea, oporrak, berari gustatzen zitzaion leku batera bakarrik zoazen lehen eguna... hainbat egoerari aurre egin behar diozu pertsona horren hutsuneagaz.

**R.T.:** Denboraren kontua kasuaren arabera izaten da; istripua zelan izan den, familiar duzun rola... Batzuek

dolua pasatu behar dute eta kitto; beste batzuek familia aurrera atera behar dute eta ezin dira hondoratu, besteak ere eurekin hondoratu daitezkeelako.

**M.R.:** Batzuek euren burua engainatzen dute; denak berdin jarraitzen duela pentsatzen dute. Gurasoek baino neba-arrebek egiten duten zerbait da hori. Agian ikasten daude, kanpoan... eta etxean gauzak berdin jarraitzen dutela pentsatzen dute.

Gurasoen kasua bestelakoa da; beste rol bat dute.

**R.T.:** Bai, baina badakit guraso batzuek lanean ordu gehiago sartu izan dituztela, etxean semearen edo alabaren hutsunea horrenbeste ez sufritzeko.

**M.R.:** Hemen askotan egiten dugu berba pertsona hori berriro bueltatuko ez dela konturatzen zaren egunari buruz. Hasieran ez zara kontziente.

*Momentu hori aurrerapausoa izango da, baina baita momentu gaitza ere...*

**R.T.:** Sufrimendu handiko momentua da. Baina orduan konturatzen zara pertsona horri buruz berba egiten jarraitzeko premia daukuzala; zure bizitzaren parte da.

**“Istripuetako heriotzen sententziak ez dira justuak izaten”**

*Ez ahazteko ahalegin horrek indarra emango du.*

**R.T.:** Horrela izan behar du. Gure familiako kide izan da, eta beti izango da.

**M.R.:** Hemen biktimek konpartitzeko aukera aurkitzen dute, normaltasunez. Azkenean, gizarteak ez gaude dolurako hezita. Ingurukoek pentsatzen dute onena horri buruz berba ez egitea dela, ez balitz gertatu bezala, baina horrek egiten du minik handiena batzuetan; inork ezer ez galdetzeak.

**R.T.:** Batzuek beharbada esango dute eurei pasatuko balitzaie ez luketela berba egin gurako, baina uste dut gero iritzi aldatuko luketela. Nahiko triste da pertsona hori berriro ikusiko ez duzula onartzea; zelan ez duzu berari buruz berba egingo?

*Justizia arloko kontuengatik ere etortzen zaizue jendea.*

**R.T.:** Justiziaren injustiziak bigarren biderrez egiten gaitu biktimek. Zigorak ez dira justuak izaten, eta sententzia batzuk entzuterakoan familiaren sufrimendua indartu baino ez da egiten; oso merkea da errepeidean hiltzea.

**M.R.:** Ez da mendeku nahia. Jendeak zer edo zer egin gura du. Euren kasuak itxita egoten dira, eta antzekorik berriro ez gertatzeko gauzak aldatzeko gogoz datoz. ■ A.Ugalde



# ALMACENES ARRASATE

**TIEN 21**



**Intxaurrondo, 12 behea**  
**Tel.: 94 681 34 85**  
**48200 DURANGO**

**Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon**  
**Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13**



**2** URTA  
 1000 b/min  
 6 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA ALF 1106**  
 260 € **aspes**

**2** URTA  
 1000 b/min  
 6 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA WAE20010EE**  
 345 € **BOSCH**

**2** URTA  
 1200 b/min  
 6 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA WM12E222**  
 375 € **SIEMENS**

**2** URTA  
 1000 b/min  
 7 kg  
**A++** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA ZEN-L1217**  
 310 € **edesa**

**2** URTA  
 1400 b/min  
 7 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA WM14E465EP**  
 410 € **SIEMENS**

**2** URTA  
 1000 b/min  
 8 kg  
**A+++** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA F-2810**  
 399 € **FAGOR**

**2** URTA  
 7 kg  
**B** Saikapen energetikoa  
**LEHORGAILUA T-56840-L**  
 435 € **AEG**

**2** URTA  
**A** Saikapen energetikoa  
**ONTZI-GARBIGAILUA SN25E206EU**  
 360 € **SIEMENS**

**2** URTA  
**A** Saikapen energetikoa  
**AI-1300 INDUKZIOA**  
 335 € **aspes**

**2** URTA  
**A** Saikapen energetikoa  
**LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X**  
**INDUKZIO PLAKA HOLLY-I3S**  
 625 € **edesa**

**2** URTA  
**A** Saikapen energetikoa  
**LABE PIROLITIKOA HBA-74A250E**  
 440 €  
**INDUKZIOZKO PLAKA**  
 465 € **BOSCH**

**2** URTA  
**A** Saikapen energetikoa  
**INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220**  
**LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M**  
 950 € **AEG**

**2** URTA  
**A++** Saikapen energetikoa  
**NO FROST**  
**HOZKAILUA FFJ4871X**  
 665 € **FAGOR**

**2** URTA  
**A** Saikapen energetikoa  
**HOZKAILUA KGN-36NVW20**  
 490 € **SIEMENS**

**2** URTA  
**A+** Saikapen energetikoa  
**NO FROST**  
**HOZKAILUA KGN 39VI20**  
 660 € **BOSCH**

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.**  
**Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.**

**ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA**  
**MERKATU GERO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA**  
**GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU**  
**+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI**

# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

### Andoni egoera larrian

Andoni Zengotitabengoa 2010eko martxoan atxilotu zuten, eta geroztik Portugalen preso dagoen euskal preso politiko bakarra da. Kartzeleratua izan zenetik guztiz isolatuta dago, egunean bi orduz bakarrik 40 m<sup>2</sup> dauzkan patio batera irten daitekeelarik.

Monsanto espetxean daukate segurtasun neurri handiekin, eta bertako bizi baldintzak espainiar eta frantziar estatuko kartzeletakoak baino are gogorragoak dira: 10 minutuko bi telefono dei soilik egin ditzake astean zehar. Espetxeko buzoa jantzita edukitzera behartzen dute, eta ziegan objektu gutxi batzuk baino ez dizkiote edukitzen uzten.

Andonik bisita erregimen penagarria pairatzen du; hurbileko senitartekoei baino ezin dute bisitatu eta hauek kristala tarteko den bisitak izaten dira.

Kristal gabeko bisita dagokionean, hau da, bis a bisak, bere bikotearekin bakarrik izan ditzake. Alabak urtean behin soilik besarkatu ditzake, aipatutako ez ohiko bisita batean.

Honetaz guztiaz gain, Andoni Portugalen dagoen euskal preso politiko bakarra denez, bere senitartekoei Elorriotik Monsantoarako 867 km-ak bakarrik egin behar izaten dituzte.

Bizi duen egoera larria salatzeke, Andonik bi gose greba burutu ditu jada, eta horrek hainbat osasun arazo ekarri dizkio. Hala ere, bere bizi-baldintzak hobetzeko eta, batez ere, bere alabak maiztasun gehiagoz besarkatu ahal izateko, hirugarren gose greba bat abiatzeko prest dago.

Andoniren egoerari amaiera emateko elkertasuna adieraztea ezinbestekoa izango da, eta ondorengo egunetan egin-goren diren ekimenetan parte hartzeko gonbita luzatzen dugu.

Elorrioko Amnistiaren Aldeko Mugimendua

## Klik batean @



### Semaforo laranja

Badira aste batzuk lurretan lehen fundizioa zegoen pareko semaforoa argi naranjagaz dabilena. Autoek ez dute beti oinezkoa errespetatzen eta lehengoan sustotxo hartu nuen. Ez dakit ba, irtenbiderik onena hori den. (Garikoitz Barreinkua)

## Sei hankako mahaia



Urdaspal Bolinaga Bildu

### Bozka ponderatua


Historikoki egin den aldarrikapena da bozka ponderatuarena, eta modu batean edo bestean instituzio batzuetan aplikatzen bada ere, oraindik udaletara ez da heldu. Horrek askotan batzordeetan politikari eta ordaindu beharrek dieten masifikazioa dakar. Durango jarriko dut adibidetzat.

Batzordeen inguruan PNVk eta PSOEak akordioa lortu dute; 7 batzorde 11 kidek osatuta, ordezkari kopuru bera mantenduta beste 3 enpresa publiko eta erakunde autonomotan.

Bildukook beste proposamen bat egin genuen, bi zatitan banatuta: batzordeen banaketa eraginkorrago eta bozka ponderatua. Guztira, 13 batzorde proposatzen genituen, gai batzuek pisu espezifikoa eta garrantzia nahikoa dutelako batzorde propio batean garatzeke: Euskara, kultura eta hezkuntza, gazteria eta kirola, garapen iraunkorra eta parte-hartzea, ... PNV eta PSOEren akordioagaz 11 pertsona joan beharko lirakeke batzorde bakoitzera; gure proposamenarekin, berriz, 5. Alderdi bakoitzeko lagun bat, bere bozka alderdiak duen zinegotzi kopuruaren arabera balioa duela; hots, bozka ponderatua.

Gure proposamenarekin batzorde gehiago egonda ere, pertsona gutxiago joango litzateke bakoitzera, diru gutxiago bideratuz dietei. Esaterako: dieta bakoitzak 55'17 euroko balioa izanik, 11 pertsonak osatzen duten batzorderako 606'87 euro bideratu behar dira; 7 batzorde gehi 3 enpresa publiko eta erakunde autonomo kontuan hartuta, 6.068'70 euro gastatuko ditu Udalak. Bilduren proposamenarekin, 5 pertsona batzordeko 275'85 euro izango lirakeke; 13 batzorde gehi 3 enpresa publiko eta erakunde autonomo: 4.413'60 euro. Kontuan izan gabe dietak murriztearen alde gaudela.

Bozka ponderatuarekin kostua murriztu daiteke; batzordeak hobeto dinamizatu eta gai gehiago lantzeko aukera dago. Baina batzuei ez zaie interesatzen; ez dute bozka ponderaturik nahi. Politikari profesionalak dira.



**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org**  
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.  
*DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak  
2011ko uztailaren 1a - 10. urtea - 422 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



**Erredakzio burua:**

Joseba Derteano.

**Administrazio burua:**

Itziar Belar

**Administrazioa:**

Miren Abasolo.

**Publizitatea:**

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amalia Huarte.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.

**Testu zuzentzailea:** Igor Ehortza.

**Argazkilariak:** Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

# KULTURA<sup>></sup>

ARGAZKIGINTZA > JAIALDIA

## Elkarrekin hazitako eskualdeko argazkilari bi Begira topaketan

Gaur bertan zabalduko du Ezkurdi aretoan argazki erakusketa **Jesus Mari Arruabarrenak** eta asteburuan argazkigintza tailerra gidatuko du **Txelu Angoitia**, Durangoko Begira argazki topaketan parte hartuz



Kepa Aginako

**1987an argazkigintzaren gaineko jaialdi bat egin zuten Durangon. Izan zineten bertan?**

**Txelu Angoitia:** Oso gazteak ginen orduan! Uste dut nik jaialdiaren barruan antolatutako zuten lehiaketara bidali nuela lanen bat. Oso jaialdi potentea izan zen: AEBetatik etorri ziren emaileak... Leopoldo Zugazak antolatutako jaialdi hura, gaur egun Zarauzko Photomuseumaren arduraduna denak. **Jesus Mari Arruabarrena:** 1987ko jaialdi hartan Merkatu plazan moketa ipini zuten, eta orduan guri sinesgaitza egiten zitzaigun arren egin zuten apustua zelako indartsua izan zen islatzen du.

**Durangaldeko argazkilarien sare edo elkarrekin baten diharduzue?**

**T.A.:** Badago halako logia masonika bat argazkilari batzuen artean, bai... (barrez). Kasu honetan baina, Leo Simoes antolatzaileak egin zigun parte hartzeko gonbita.

**Hartu duzue parte jaialdiaren orainarteko ekitaldietan?**

**T.A.:** Joan zen astean, Roger Guauskek eskaini zuten berbaldean egon ginen biok. Ekarpenean interesga-

riak izaten dira halako hitzorduak, dela argazkiengatik dela argazkilariaren diskurtsoagatik.

**J.M.A.:** Guk egiten dugun argazkigintza eta Roger Guausena lana desberdinak dira, baina interesgarria izan zen.

“Ekarpenean interesgarriak izaten dira Begira lako hitzorduetan”

**Gaur bertan zabalduko duzuen erakusketa dakarzu zuk, Jesus Mari. Zeren ingurukoa da?**

**J.M.A.:** *Ckristopaganian* izena dauka erakusketak, eta jaietan eta elizkizunetan egindako argazkiak dira. Ikuspegi nahiko interpretatibo eta korrosiboa daukala uste dut. Zerua eta lurra; jainkoa eta pertsonaren bizipoza jartzen ditu parez pare, besteak beste.

**Non eta noiz egindakoak dira erakusketako argazkiak?**

**J.M.A.:** Gehienak Nafarroan egindakoak dira; Nafarroako errome-

rietan, inauterietan eta abar. Bertan konturatu nintzen fedea zein jaia oso modu neurribakoan adierazten dutela bertan. San Fermi-  
nak dira nahaste hori ikusteko aukera paregabea: goizean prozesioa daukazu, eta inguruan gau-paseroak... Horrek eman zidan klabea. Gero, besteak beste, Tarazonan edo Burgosen ere egin ditut argazkiak. Orain hamar urte inguru hasitako lana da.

“Dokumentalismo subjektiboa deitzen den horren barruan geundeke biok”

### Kamerari helduta, intuizio bati konpromiso jarraituz

Argazkigintzari dagokionez elkarrekin hazitakoak direla kontatu digute belaunaldi berekoak ere badiren Txelu Angoitia eta Jesus Mari Arruabarrena Durangaldeko argazkilariak.

Beste ezerean gaitetik argazkigintza “eskape bat da guretzat”, azpimarratu digute sortzaileek: “Gehien disfrutatzen duguna, argazkiak egiteko momentua bera izaten da”.

Aldi berean hainbat ideia garatzen jarduten dute Angoitia eta Arruabarrenak. “Biok gara nahiko dispertsoak; aldi berean, hainbat bide zabalduz egiten dugu lan”, azaldu digute.

Publiko zabalaren gustuko izaten diren “paisaia ikusgarri eta koloretsuen bila” barik, momentuko bestelako intuizioei jarraituz egiten dute euren lana Durangoko I. Begira topaketan

**Tailerra eskainiko duzu bihar eta etzi zuk, Txelu. Antzeko tailer bat gidatuko duzun lehenengo aldia da?**

**T.A.:** Tailer bat horrelako formatu laburrean ematen dudana lehenengo aldia izango da, baina aurretik tailer luzeagoak eman izan ditut urtero.

**Pentsatuta daukazu asteburuko tailerra zelan planteatu?**

**T.A.:** Parte-hartzaile bakoitzaren lanetatik abiatuta, argazkizaleari bere lanean aurrerapausoak emateko tresnak eskaintzen zaizkion espazioa sortzea da nire asmoa: bideak zabaltzen laguntzea. Parte-hartzaile bakoitzak bere argazki lanak ekarriko ditu, eta bakoitzak bere mailan aurrerapausoak ematea da helburua. Proposamen kreatiboak eskainiko ditugu, eta lanari etekin handiena zelan atera landuko dugu.

**Ikasle moduan jardun izan duzue halako tailerretan?**

**T.A.:** Bai, eta oso aberasgarriak izan dira beti. Hasieran biok izan gara autodidakta, baina oso maila handiko jendeagaz hainbat tailer egiteko aukera izan dugu. Elkarrekin joan izan gara sarritan.

**Eskertzen duzue hau lako jaialdi bat izatea Durangon?**

**T.A.:** Nik uste dut, batez ere, elkarrekin egoteko aukera direla horrelako topaketak. Batzuetan argazkigintzagazko zaletasuna norekin konpartitu ez duzu izaten inguruan, eta hartu-eman zuzenerako aukera polita da.

**J.M.A.:** Sintonia bat sortzen da. Parte hartzen duen jendeagaz konpartitzeko aukera egoten da. Argazkigintzagazko interesa konpartitzeko espazioa da.

**Biok ardatz beraren inguruan jarduten duzue argazkigintzan.**

**T.A.:** Bai, esan liteke baietz. Dokumentalismo subjektiboa deitzen den horren barruan geundeke biok. Errealitatea da gure lehengaia, eta bere diskurtsoa eratzeko saiatzen da bakoitza. ■ I. Esteban.

parte hartuko duten argazkilari biek. Argazkigintza pertsonal hori ikuslego oso zehatzak izaten ei du gustuko, eta ez ei da erraza izaten halako lanak sozializatzea. “Gaur egun aukera interesgarria autoeditajeta da”, diosku Arruabarrenak: “Argazkiliburuak norberak argitaratzea”.

“Proiektu batek zer forma hartuko duen konturatzen zareneko sentsazioa oso polita izaten da: argazkiei koherentzia ikusten hasten zaren unea”, esan digu uztailearen 15era arte Begira jaialdiaren barruan erakusketa izango duen Arruabarrenak.


ARTEA > ERAKUSKETA

## Alain Alquier artista frantsesaren margoak Durangoko Museoan, uztailearen 24ra arte

Atzotik dago Alain Alquier (Tarbes, 1947) margolari frantsesaren margoen bilduma Durangoko Arte eta Historia Museoan bisitagai. Uztailearen 24ra bitartean Durangon ikusgai izango dira bere ibilbidean, urte luzeetan, besteak beste, pintura eta argazkigintza uztartuz lan egin izan duen egilearen pintura lanak. Argazkigintzaren figurazioa eta pinturaren abstrakzioa ikuslearen interpretaziorako eskaintzen ditu bere sorkuntzetan.

Taldekako erakusketak Frantziako hiri askotan, Belgikan eta Estatu Batuetan ere ipini izan dituen egilea da Alain Alquier, 1970eko hamarkadan ekin ziona bere lanak jendaurrean aurkezteari.

“Nire benetako emozioak, nire egia pertsonala eskaintzen ditut”, azaltzen du artistak bere lanaz: Durangoko Museoan bildutako lanen kasuan, margoagaz sorkuntakoak bildu ditu. ■ I.E.



JAIALDIA > DURANGON

## Durangaldeko folk taldea eta antzerkia uztailean ere uda kalean bizitzeko

Uztailearen 1 eta 4rakoak dira Uda Kalean Bizi jaialdiaren astebururako proposamenak: Ullannah eta Ganso & Cía taldeen emanaldiak aukeran



**D**urangoko Tabira auzoan eskainiko du, gaur, Durangaldean sorturiko Ullannah taldeak kontzertua. Uda Kalean Bizi jaialdian, udako giroa aprobetxatuta kultura haizetara gozatzeko aukera eskaintzen duen programazioaren barruan eskainiko dute gaur, 21:00etan, kontzertua. Taldekideek “euskal balkan folk” deitzen dutena eskainiko dute gaur gaueko emanaldian; Europako ekialdeko musika tradizioetatik abiatuta, bestelako doinuak sortzen dituzte Ullannahkoek.

Uztailearen 4koa da Uda Kalean Bizi jaialdiaren barruko hurrengo hitzordua; Durangon kokatutako Ganso & Cía taldeak, Leioako Umore Azokan aurkeztu zuen *Mediope- lo* umorezko obra eskainiko du. ■ I.E.

Balkanetako musikatik abiatuta bestelako doinuak sortzen dituzte Ullannah taldeko kideek

ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

## Zaldibarko XXVIII. Argazki Rallya egingo dute asteburu honetan

Uztailearen 3an ospatuko dute Zaldibarko XXVIII. Argazki Rallya. Hiru sari nagusi, argazkilari gazte onenarena eta herriko saria eskainiko dituzte

Joan zen asteburuan argazki zaharren erakusketak antolatu zuen Zaldibarko Ilargi argazkizale taldeak, eta bere ekimenez antolatu dute uztailearen 3ko Argazki Rallyaren hogeita zortzigarren edizioa ere.

Bost sari banatuko dituzte domekan, parte hartzen duten argazkilarien artean; 155 euroko lehenengo saria, 100eko bigarren, 75eko hirugarrena, 75 euroko herriko saria eta 50eko gazte onenaren saria.

Interesa daukatenek, domekan 08:30etik 09:30era eman ahal izango dute lehiaketan izena

Ilargi argazki taldearen egoitzan, 08:30etik 09:30era egin ahalko dute parte hartzeko interesa daukatenek izen-ematea. 17 urtetik beherakoentzat eta zaldibarkoentzat dohainik izango da izen-ematea, eta 5 euro ordaindu beharko dituzte gainerako argazkizaleek.

Argazkilari askorentzat ohitura bilakaturako hitzordua da datorren domekako: Euskal Herriko bazter askotatik etortzen dira argazkizaleak lehiaketan parte hartzera, eta herriko zaleek ere hartzen dute urtero lehiaketan parte. Antolatzaileek emandako gaiak ondoen islatzen dituzten irudiak bilatu eta euren kameran memorieta gordetzen jarungo dute domeka eguerdira arte.

Uztailearen 17an, 12:30ean, liburutegi zaharrean egingo dute argazki emanaldia eta lehiaketaren sari-banaketa. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz Berbaroko kidea

## Denboraldiaurrea

Ez dakit zer gurago dudan, ikasturteko errutina gozoa edo udako noraezko abiada, geldoa gutxitan, azkarra gehienetan; hain doaz arin erlojuaren digituak! Guztiz nagituta nabil garunak astintzeko; igaro dugun bero zapak, ezeri ekitoko gogo barik utzi nau, egia esan. Neure buruarekin hartutako konpromisoa bete behar, ordea. Eta horrelakoetan *Under pressure* Freddie handiaren abesti zoragarria etortzen zait burura.

Udako solstizioa aztoramenetik libre dabilta aita-amak; seme-alabak salbu dira. Abian daude udalekuak, eskerak! Egundo ez dut ezagutu horren eskaintza zabala eta askotarikoa. Dene-tatik bat behar nuen hona ekartzeko eta, udalekua ez bada ere, Izarren Distira showa prestatzeko barnetegia hautatu dut, bitxia begitandu zait-eta. Gran Hermano izenekoa ekarri dit gogora artista izateko bokazioa duten eskualdeko neska-mutilak batzuek. Denboraldiaurrekoa egitea da asmoa, denboraldia iristen denean sasoian egoteko; han landutakoa jendaurrean erakutsi behar baita.

Laster eratuko dira, osorik, geure Durangaldeko udalerriak. Oraingoan berandu samar gabilta eta pena da, ze egoera politiko berriak itxaropen zantzuak ekarri ditu. Gainera, uda sasoi aparta da harreman ez-formalei tartetxo egiteko.

Kontua dalau urteko agintaldiari ekin aurretik, ondo legokeela gure ordezkariak denboraldiaurretza egitera bidaltzea, izar gazteek eta kirolariak egiten duten antzera. Baina, barnetegia, bainuetxea...? Ur gezaduneko parajea edo itsas ertza? Leku epela behar du, igerilekuarekin, etzaulki (tunbona) erosoekin, tartean gerizpean, tartean eguzkitan egoteko; eguzkitako krema eskura, nahi adina, elkarri emateko... Batak bestearen azala ukendu zurixkaz igurtzerakoan konturatuko dira zein antzekoak garen denok. Elkar ezagutuko dute, elkar ulertuko, elkar maitatuko... Herria irabazle. Suminduek eskertuko lukete. Freddieren beste abesti mitiko batek *We are the champions* dio.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

UZTAILAK 1-3 (22:00/20:00)  
**BEGIRA**  
www.begiraphoto.com  
ARGAZKI PROIEKZIOA. Sarrera doan.

UZTAILAK 8 22:00etan  
**CLOSING PARTY**  
IKER UNDERSOUND & RUBEN COSTAS  
(+ IBAILO (2nd floor Txitarro))  
GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 10-12euro.

Eguneko menua astelehene-tik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**ULLANNAH** Euskal Balkan Folk  
Tabirako parkean  
Uztaileak 1 • 21:00

**MEDIOPELO** Ganso & Cía  
Udaletxeko plazan  
Uztaileak 4 • 20:00

**TIZIANA TAGLIANI**  
Arpa-konutzerlua  
Kurutzesantu museoan  
Uztaileak 7 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

MUSIKA > KONTZERTUAK

# Herriko musika talde gazte biren kontzertuak Atxondon

Sermond's elorriarrekin, Atxondoko jaietan joko dute herriko Kilaueak eta Sostendunak



**H**awaiko sumendi baten ize-na hartu zuten duela urte bi taldea sortu zutenean: Kilauea. Ordura arte lotan egondako sumendia zelan berriro berpizten hasi zen notizia entzun, eta metafora polita iruditu zitzaion. Gaur kontzertua eskainiko duten Atxondoko Gaztetxean eskaini zuen taldeak iaz lehenengo kontzertua, eta bertako bigarren solairua dute entsegu-leku.

Atxondo, Elorrio, Otxandio eta Lazkaoko 24 urte bueltako

Asteon bidali du Kilauea taldeak lehenengo diskoa masterizatzen

Atxondo, Otxandio, Elorrio eta Lazkaoko musikarien taldea

musikariak dira Kilauea taldekoak; aurretik Infernuko Panpinak taldean ibilitakoak dira kide bi.

Gogotsu daude ahalik eta kontzertu gehien eskaintzeko: prest kontzertuetarako behar den guztia mugitzeko, jendeari euren musika helarazteko. Hamabi kanta daukate sortuta, eta horietan eskaintzen dituzte kontzertuetan.

Aste honetan masterizatzen eraman duten diskorako, berriaz, dozena horretatik zazpi kanta hautatu dituzte: ahotsak, gitarrak, eta

abar landuen dauzkatenak. Jon taldekideak azaldu digunez, beranduen jota, hilabete barru itxaroten dute diskoa prest edukitzea.

Rock talde eskandinabiarraren zaleak dira Kilaueakoak, eta igaritzen da hori sortzen dituzten kantetan. Gaur, Atxondoko jaietan euren kontzertua eskainiko duten Sermond's taldekoekin ere badute loturarik; Dirties ere aipatu digute influentzia moduan.

Ingelesez eta euskaraz kantatzen dute; *Sinner* edo *Woman* dira euren abestietako biren izenburuak. Euren musikagaz eta Miren Amurizaren berbekin osatu zuten, bestalde, Otxandio Gaztetxearen urteurrenko kanta.

Gasteizko auzo bateko jaietan, Ordizian eta Bilbon daukate, oraingoz, uda honetarako kontzertuak lotuta. ■ I.E.

Sermond's, Kilauea eta Sostendunak, besteak beste, gaur Atxondon

Eskandinabiako rock taldeen zaleak dira Kilaueako musikariak

## Sostendunak: erromeria giroa herriko Gaztetxean

Joan zen barikuan, Axpeko jaietan eskaini zuen Sostendunak Durangaldeko laukoteak lehenengo emanaldia. Gaur, Atxondoko San Pedro jaietako Gaztetxe emanaldia itxiko dute. Sanjoanetako emanaldi hartan jendea dantzan baino gehiago begira egon zela-eta, Gaztetxe gaurko hitzorduan ikusle goak gerria gehiago mugitzea itxaroten dutela esan digute: ordu horietan jendeak gura izaten duena dantzan egitea dela-eta, jotak, abesti dantzagarriak, juergarako doinuak eskainiko dituzte Sostendunak taldekoek.

Alaitasuna eta jai-giroa zabaltzeko, bertsioak jotzen dituen taldea da Durangaldeko 17 eta 20 urte bitarteko gazteek osatzen duten Sostendunak. Ze Esatek!, Tapia eta Leturia edo Alaitz eta Mainerren bertsioak eskaintzen dituzte. Panderoa, trikitixa, gitarra eta bateria doinuak uztartzen dituzte taldean.

Arrazolako jaietan jotzeko ere deitu dietela kontatu digute, eta aurrerantzean euren kantak sortzeko asmoa daukatela.

"Amamaren sostenak" jantzita aterako dira euren bigarren kontzertura, gaur, Atxondon.

MUSIKA > JAIALDIA

# Gaur zortzi bitartean, antzezlan bi eta hiru musika emanaldi Elorrion



Gaurtik barikura arte, haizetarako bost kultur emanaldi dakartza Elorrioko Musikaire programazioak. Aldameneko argazkiko Joseba Tapiak eta bere taldeak joan zen urte amaieran aurkeztu zuten *Eta tira eta tunba* diskoko kanta berriak joko dituzte uztailaren 8an Argiñetan. Azaroan beragaz izandako elkarrizketan musikariak

nabarmetzen zuenez, oso "kantagarriak" dira abesti berri horiek. Argiñetan trikitixa, tuba, tronboia, tronpeta, saxofoia eta perkusioa izango dira entzungai.

Gaur gaueko Soul Tellers taldearena, Ara Malikian eta Fernando Egozkueren boskotearen biharkoa eta Joseba Tapiarena dira gaur zortzira arteko Musikaire jaialdiko aukerako kontzertuak.

Datozen egunetan, Elorrioko plazan izango dira Musikaire programazioaren barneko beste bi hitzordu ere; Markeliñe taldearen *Anomalía magnética* obra, uztailaren 3an, eta zirkua eta kale antzerkia uztartzen dituen Niño Costriniren *Humanus Comicus* ikuskizuna, uztailaren 4an.

Datorren barikutik, uztailaren 8tik, aurrera ere eskaintza oparota ekarriko du Musikaire; beste zazpi musika eta antzerki emanaldi izango dira gozagai. ■ I.E.

'Eta tira eta tunba' diskoa aurkeztuko du uztailaren 8an Joseba Tapiak

Uztailaren 3an eta 4an dira Markeliñeren eta Niño Costriniren obrak

katerin ardoak  
iñaki uribe



KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltzan.com

**URTXINTXA**

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK  
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

"BODEGUILLA"



TRAÑA-MATIENA  
Tfn. 94 681 43 85



Kepa Aginako

# Durangaldeko Behargintza, ekintzaileen bultzatzaile

Ekintzailearen Eguna dela-eta, Behargintzak Durangaldean lantzen dituen ildoetan sakondu gura izan dugu. Durangoko bulegoetara hurreratuz gero, enpresa sortu edo sendotu gura duten ekintzaileek zerbitzu baliagarriak dituzte aukeran. Hauen esperientzia ere jaso dugu.

**B**ehargintza Durangoko Amankomunazgoko garapen agentzia da, eta bere zerbitzuak Amankomunazgoko kide diren udalerriei zuzenduta daude: Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar, hain zuzen ere. Tokiko Garapena, Enplegua eta Enpresa Sustapena jorratzen ditu lan ildo moduan, eskualdeko garapen agentzia den aldetik.

## Enpresa Sustapena

Enpresa Sustapenaren baitan, bi zerbitzu bereizten dituzte: Enpresa Txiki eta Ertaintzako Aholkularitza, eta Enpresa Sormena. Lehenengoa eskualdean errotutako enpresen sendotzea bideratu gura duen tresna da,

enpresok lehiakorak izatea helburu nagusi izanik. Enpresek gaur egungo nahiz etorkizuneko oztopo eta erronkei aurre egiteko aholkularitza gainera, administrazioek eskaintzen dituzten diru-laguntzen berri eman eta baliabide espezializatuak bideratzen ditu zerbitzuak.

Bigarren zerbitzua enpresa berriak sortzeko aholkularitza zerbitzua da, eta beharrezko den informazio osoa eskuraga-

Azken urteetan 200 enpresatik gora sortu dira Durangaldean

rri dute sortzaileek. Horiak duten edozein zalantza argitzen da Enpresa Sormena zerbitzuan; besteak beste, era juridikoaren azterketa, finantzaketa eskatzeko aukerak, diru-laguntzak, fiskalitatea, enpresa kudeatzeko formakuntza...

## Balantzerako datuak

Durangoko Amankomunazgoak zerbitzu hori martxan ipini zuenetik ia 1.000 ekintzaile hurreratu dira informazio eske Behargintzako bulegoetara, 600 enpresa proiektu baino gehiagogaz. Aurkeztutako proiektu horietatik 200 enpresa baino gehiago sortu dira azkenean Durangaldean; Merkataritza eta Enpresentzako Zerbitzuen arloetan, batez ere. Martxan

ipintzeko ekintzaileek gehien erabiltzen duten era juridikoa autonomo izaera izan ohi da.

## Ekintzailearen Eguna

Durangaldeko Behargintzak antolatzen dituen ekintzen artean Ekintzailearen Eguna dago. Eskualdean enpresa berriak martxan ipini eta lehenetik dauden lehiakortasuna hobetzeko sustatzen da ekimen hori, Estatuko autonomia erkidego guztietan urtero egin ohi den moduan.

Behargintzatik azaldu digutenaren arabera, ekimen honen helburua ekintzailearen irudia bultzatzea eta bertako enpresek eskualdeko garapenaren alde egiten duten lana goraiatzea da.

Enpresak lehiakorak izatea da aholkularitzaren helburu nagusia

Azken urteetan 200 enpresatik gora sortu dira Durangaldean

2011ko Udako

San Andres Jaiak

AIAK - TXUELA - DANTZAK - JUERGA - LAGI!  
TXOPOA - ERRROMERIA - TXOSNAK - AFARIAK - KUAI  
BERTSOLARIAK - GAUPASAK - LEHIA  
KALIMOTXO - PELOTA - TXUPINAZOA - K.  
IZIRIAK

Zaldibar

anboto



Zaldibarko udalak



Udako San Andres Jai Zoriontsuak  
opa deutsuez zaldibartar guztioi

**UZTAILAK 2, 3 eta 4**

- Eskualdeko XXI. Areto-futbol Txapelketa kiroldegian.

**UZTAILAK 2, ZAPATUA**

- **16:30ean**, Jubenil mailako 1. eta 2. urteko txirindulari lasterketa.
- **16:30ean**, Durangaldeko Eskolarteko IV. Pilota Txapelketaren finala, Olazar pilotalekuan.

**UZTAILAK 3, DOMEKA**

- **08:30-14:30**, XXVIII. Argazki Rallya
- **10:00etan**, Bizkaiko eskolen arteko txirindulari lasterketa.
- **16:00etan**, Txirindularitza lasterketa (Erlojupekoa. Elorrio-Zaldibar)

**UZTAILAK 7, EGUENA**

- **18:30ean**, Herriko jendeak donien-atxa ipiniko du.
- **18:30ean**, Jaietako kartel lehiaketako sari-banaketa, Udaletxean.
- **19:00ean**, Jaien hasiera iragarritz, txapligua jaurtiko dute Udaletxetik Zalduakoek, preferentean sartzea lortu dutelako aurten. Ondoren, kalejira Koral elkarteko txistulariekin eta buruhandiekin.
- **19:30ean**, TrikiBERTSOPOTEOA.
- **20:30ean**, Odoloste-jana Bekoetxe kalean.
- **21:30etan**, Herri-afaria txosnetan.
- **23:00etan**, Dantzaldia: Disko-festa.

**UZTAILAK 8, BARIKUA**

- **11:00etan**, Kalejira Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketako trikitilariekin.
- **12:00etan**, Meza San Andres parrokian.
- **17:00-20:00**, Eskulan erakusketa Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.
- **18:00etan**, Txaranga kalez kale.
- **18:30ean**, Afizionatuen arteko pilota partidak Olazar pilotalekuan.
- **19:00etan**, Umeen arteko olinpiadak eskolan.
- **21:00etan**, Luntxa Gaztetxean.
- **23:30etan**, Rock kontzertuak: Bizardunak eta herriko talde bat.

# Zaldibarko JAI EGITARAUUA

**UZTAILAK 9, ZAPATUA**

- **10:30-13:00**, Arku jaurtiketa ume eta nagusientzat, Arku Taldearen galerian.
- **11:00-13:00 eta 16:00-19:00**, Quad-ak, jumping, txalupak, puzgarriak... eskolan.
- **12:00etan**, Tortilla txapelketa.
- **15:00etan**, Herri-bazkaria txosnetan.
- **16:30ean**, Saskibalo partida 3\*3.
- **17:00-20:00**, Eskularen erakusketa Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.
- **18:00etan**, Kale animazioa.
- **19:00etan**, Afari-merienda Olea kalean: solomoa eta sardinak.
- **23:00etan**, 'Mortimer' antzezlan.
- **00:00etan**, Gozategi taldea.



**UZTAILAK 10, DOMEKA**

- **11:30ean**, Meza San Martin ermitan.
- **17:00-20:00**, Eskularen erakusketa Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.
- **18:00etan**, Bertsolariak Zaldua plazan: Balkoitik balkoira: Onintza Enbeita, Andoni Egaña eta Amets Arzallus.
- **23:00etan**, Su artifizialak Askorra kalean.



Argazkiak: Innova

**UZTAILAK 16, ZAPATUA**

- **07:00-15:00**, Mendi ibilaldi neurtua. Irteera: Zaldua plaza

**UZTAILAK 17, DOMEKA**

- **12:30ean**, Argazki digitalen emanaldia eta sari-banaketa liburutegi zaharrear.

Barruetako diseinua

**etarte**

www.etarte.com

Euskal Herria z/g. ZALDIBAR  
T/F: 94 603 04 16

**BARATZA** FRUITADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2ª behea  
Tel.: 946 225 063  
48250 Zaldibar, Bizkaia

**Lola**  
Opariak eta lorak

ondo pasa jaietan!

Tel.: 94 635 00 08  
Zaldia Elizateko Aldea, 10 behea  
48250 Zaldibar (Bizkaia)

**Launa plus** Ondua

**Launa** Arabar Emoxa

www.bodegaslauna.com  
info@bodegaslauna.com  
Tel.: 94 682 41 08

**IMENDIA**

- Bideo atokairua
- Prentsa salmenta
- Fotokopiak
- Goxokiak

Tel./Fax: 94 682 74 13  
Zaldiasolo E. T.  
48250 ZALDIBAR

**maderlan**

Altzariak Dekorazioa

Bilbao etorbidea, 9 behea • 48250 Zaldibar  
Tel.: 94 622 50 74



# Zalduaren pregoiagaz hasiko dira jaiak

Donien-atxa ezarri ostean, 19:30ean, irakurriko dute pregoia

**U**rte osoa itxaroten egon ondoren, egue-nean, uztailaren 7an, zaldibartarrek Donien-atxa ezarriko dute, urtero legez. Ofizialki, berriz, Udako Sanandresak 19:30ean hasiko dira, txupinagaz; Zalduko jokalaria arduratuko dira horretaz. Lehentasuneko Mailara igotzea lortu dute aurten, lehenengoz historian. Ondoren, festa Zaldibarko kaleetan barrena hedatuko da. Batetik, Koral elkarteko txistulari eta buruhandiek kalejira egingo dute; bestetik, triki-bertsopotea egongo da. Kaleetan gora eta behera ibili eta gero, indarberritzeko aukera egongo da Bekotxe kaleko odoloste-janean zein txosnaguneko herri-afarian.



tzea lortu dute aurten, lehenengoz historian. Ondoren, festa Zaldibarko kaleetan barrena hedatuko da. Batetik, Koral elkarteko txistulari eta buruhandiek kalejira egingo dute; bestetik, triki-bertsopotea egongo da. Kaleetan gora eta behera ibili eta gero, indarberritzeko aukera egongo da Bekotxe kaleko odoloste-janean zein txosnaguneko herri-afarian.

**23:00etan hasita, Disko Festa dantzaldia egingo dute. Jaiak goizaldera arte iraungo du**

Amaitzeko, Disko Festagaz dantzaldia egongo da; 23:00etan hasita, goizaldera arte luzatuko da festa Zaldibarren.

## Bizikleta, pilota eta mendia

Jaietan kirolaz gozatzeko aukera egongo da, praktikatu zein besiteen jarduna ikusiz. Domeka honetan Bizkaiko eskolen arteko txirrindulari lasterketa korrituko dute. Begira egon baino ariketa egin gurago duenak uztailaren 16ko mendi martxan parte hartu dezake. Ibilbideak 30 kilometro inguru ditu eta Oiz, Maguma eta Garaitik igaroko dira; 07:00etan irtengo dira Zaldibarko elizatik. Izena egunean bertan eman behar da 06:15etik aurrera.

Pilotak ere emango du zeresanik, bihar 16:30ean, eskualdeko Eskolarteko IV. Pilota Txapelketako finalekin.

Kirol egitaraua osatzeko, uztailaren 9ko goizean arku jaurtiketa praktikatzeko aukera izango dute ume zein helduek Zaldibarko Arku Taldearen galerian.

## Hainbat ikuskizun jai giroa kalera ateratzeko

Urtero legez, Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketako trikitilariak kalejiran irtengo dira uztailaren 8ko barikuan. Zapatuan, herri-bazkaria egingo dute txosnetan eta arratsaldean afari-merienda egingo dute Olean. Iluntzean balkoitik balkoira kantatuko dute Onintza Enbeitak, Amets Arzallusek eta Andoni Egañak.

Urtero jende asko batzen duen beste ekimen bat odoloste-jana da; Bekoetxea kalean egingo dute, uztailaren 7an, 20:30ean.



**Onintza Enbeita, Amets Arzallus eta Andoni Egaña balkoitik balkoirako bertso saioan**

## Bizardunak eta Gozategi zuzenean

Musika proposamen anitzak jasotzen ditu jai egitarauak. Azkena Rock jaialdian egon ondoren, Bizardunak taldeak Zaldibarrera ekarriko du bere musika martxosoa uztailaren 8an.

Dantzarako gonbita egingo duen beste talde bat Gozategi izango da, uztailaren 9an. Egun berean antzerkizaleek Haritza Rodriguezen *Mortimer* lana ikusgai izango dute.



**GALLASTEGI**  
gallastegiharategiak@euskalnet.net  
1955 ean sortua

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR

**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO

**MUELLES ZALDUA**  
EDUARDO JAUREGIBARRIA  
GERENTE

Avda. San Andrés, n.º 1  
48250 ZALDIBAR (BIZKAIA)  
Tfno.: 946 82 78 01/02  
Fax: 946 82 76 54

E-mail: info@muelleszaldua.com  
www.muelleszaldua.com

**Juan Ramon Azkonizaga**  
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzalea:

Cruzcampo Heineken KALIBER SIN GUINNESS CHANDU PENACLARA GORTIAR viña Alcorta

# 2011 zaldibarko jaiak

## BAR NEGU-GOGOR

Tfnoa. 94 682 70 03  
ZALDIBAR (Bizkaia)



**Paularen zokoa  
KAFE**  
7:00retatik aurrera zabalik  
946550481 zaldibar



**kizkitza** taberna  
Berezitasunak:  
• Pintxoak • Ogitartekoak • Etxeko gozogintza •  
Tel. 946 033 310  
Euskalherria, 30 - 48250 Zaldibar - Bizkaia

**GASTET ELKARTEA**  
  
Zaldibar  
  
ETXEO PATÉ

**EKINTZAILEEN ESPERIENTZIAK**

# Enpresak sortu, sendotu eta hazteko babesak Durangaldeko Behargintzan



Montevideo kalea, 3 - Durango • Tel.: 648 260 849

## “Gizarteari eta bere premiei begira egon behar dugu beti”

Mikel Bastegieta durangar gazteak gizonezkoen modan espezializatutako denda zabaldu zuen duela urtebete. Behargintzaren laguntzari garrantzia handia ematen dio, eta aurrera begira proiektua zabaltzea hausnartzen dabil.

**Zertan dihardu zure enpresak?**  
Gizonezkoentzako moda eta oinetakoak saltzen ditugu. Oinetako eta arropa berezia da, modernoa goa, marka garrantzitsuekin. Denda 2010eko irailaren 10ean zabaldu genuen.

**Denda zabaldu zenuenetik zerk asebate zaitu gehien?**

Egi bihurtutako ametsa izan da. Denbora luzez eduki dut denda zabaltzeko ideia buruan, Durangon gizonezkoei begirako moda faltan somatzen nuelako. Beti gustatu izan zait jendaurrean lan egitea. Urtea beteko du dendak laster, eta krisia badago ere emaitzak oso onak izaten gabiltza.

**Denbora tarte horretan zein izan da oztoporik gaitzena?**

Konplikatuena, baimenak udalari eskatzeko egin beharreko papearak dira. Herriko merkataritza bul-

tzatzeko lagundu beharrean oztopoak ipintzen dabiltzala ematen du askotan.

**“Bihar-etzi emakumeentzako moda denda bat zabaldu gurako nuke”**

**“Behargintzara joan eta informazio guztia eskuratu ahal izan nuen”**

**Hazteko aukera ikusten duzu?**  
Oinetakoekin eta arropa apur batez hasi ginen. Urtebete pasatuta, ohartu gara jendeak arropa mota gehiago eskatzen duela. Irailarako konponketa batzuk egin gura ditugu, espazio handiagoa eduki eta arropa gehiago sartze-

ko. Bihar-etzi emakumeentzako moda denda bat zabaldu gurako nuke. Gizarteari eta bere premiei begira egon behar dugu beti.

**Enpresa berri bat martxan ipintzeko garaian, zer somatzen du faltan pertsona ekintzaile batek?**  
Sektore honetan arropa sei hileko aurrerapenagaz erosten da. Beti etortzen zaizkit zalantza berak: Zenbat erosiko dut? Larregi erosi ote dut? Zer edo zer falta da? Koloreak... Kontuok zelan egin gomendatuko duen nor edo nor egon beharko litzateke.

**Durangaldeko Behargintzak zertan lagundu dizu?**

Negozioa zabaldu gura nuela argi izan nuenean, lehenengo gauza Behargintzara joatea izan zen. Hitzordua segituan eman eta informazio guztia eman zidaten: zelan zabaldu negozio bat, dirulaguntzen berri... Berrikuntzen gaineko informazioa bidaltzen jarraitu dute gerora, telefonoz edo e-mailez, eta zalantzak argitzeko ere beti daude prest.



Fray Juan de Zumarraga kalea, 7-2 - Durango • Tel.: 94 655 09 48

## “Produktua saltzen duen komertziala izaten ikasi dugu”

Joseba Peña eta Rodrigo Sarralde zuzentzen dute CLAVE -Arquitectura & Ingeniería enpresa. Urtea betetzear oraindik, prestakuntzan sakontzea aztertzen dabilta. Behargintzaren aholkuen eta laguntzen berri azaldu digute.

**Zein da enpresaren jarduerak? Noiztik dago zabalik?**

Bazkide bigara, bata arkitektoa eta bestea bide, ubide eta portueta-ko ingeniaria. Arkitektura eta ingeniari zibilaren arloetan behar egitea izan da gure asmoa, horrela merkatu zabalago bat izateko. 2010eko urrian zabaldu genuen estudioa.

**Estudioa zabaldu zenuenetik zerk asebate zaituzte gehien?**

Gauzarik onena pentsatu eta diseinatutako proiektu bat zelan erakitzen den ikustea da. Datorren uztailaren 23an, Otxandion, eskultura bat inauguratuko dute Gerra Zibileko bonbardaketan hildakoen omenez, eta gure estudioan kalkulatu dugu eskultura hori. Dagoeneko eraikita dago tailer-ean, eta hein baten guri esker-erak egin dela ikustea ohore bat da guretzat.

**Denbora tarte honetan zein izan da oztoporik gaitzena?**

Zalantzarik barik, gaitzena gure burua ezagutaraztea izan da. Bezeroak bilatzen, produktua sortzen eta norbere produktua saltzen duen komertziala izaten ikasi behar izan dugu.

**Hazteko aukerak ikusten dituzue?**

Uste dugu apurka-apurka joango gabela hazten. Obra berriak ez dira gure lanbidearen motor nagusia; berriztatze lanetan eta eraginkortasun energetikoaren alorrean gabiltza gure prestakuntza sakontzen.

**“Otxandion guk kalkulaturako eskultura bat inauguratuko da uztailean”**

**Enpresa berri bat martxan ipintzerako garaian, zer somatzen du faltan pertsona ekintzaile batek?**

Laguntza ekonomikoak behar ditugu, eta eurretara heltzeko ez dadila horrenbeste paper eta burokrasia egon. Gaur egun, atarian arkitektura & ingeniari-za ipintzen duen plaka bat jarrita ez zaizkizu bezeroak ilaran ipintzen. Lana topatzea da gaitzena; unibertsitatean ez dizute hori irakasten.

**“Lana topatzea da gaitzena; unibertsitatean ez dizute hori irakasten”**

**Durangaldeko Behargintzak zertan lagundu dizue?**

Estudioa sortzeko lortu ahal genituen dirulaguntzen eta hauen kudeaketaren berri eman digute. Enpresen kudeaketa ekonomikoari buruz eskaintzen duen ikastaro baten parte hartu dugu. Orain, elkarriketa honen bidez, prentsan argitzeko aukera ere eman digu.



# Lanerako Langile trebatuak



## GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak.
- Web Aplikazioen Garapena.
- Ekipo Industrialen Mantenua.

## ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza.
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Makineria eta Linea - Eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak.

## ESKANTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

## SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

**DATAK**

**Matrikula: Uztailak 5etik 11ra**

**Ziklo guztiak Euskaraz eta Gazteleraz**

Tel.: 94 673 02 51  
e-mail: [info@fpzornotza.com](mailto:info@fpzornotza.com)  
[www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)



# KIROLAK >

## Ekimen berritzaileak ardatz 75. urteurrenaren ospakizunean

Txirrindularitza eta ingelesa uztartzen dituen ekimena jarri du abian Durangoko Txirrindulari Elkarteak. Udalekuz gainera, trukea egingo dute durangarrek Eskoziako 13 txirrindularigaz.



Gazte eta kadete mailetako txirrindulariek osatzen dute Beste Alde Orue eskola taldea.

**M**endearen hiru laurdenak bete ditu aurten Durangoko Txirrindulari Elkarteak; 75 urte igaro dira 1936ko martxoaren 4an taldea martxan jarri zenetik. Lasterketak antolatzeara zen orduan elkartearen helburua. Gerora, 1972an, txirrindularitza eskola bilakatu zen.

Indartzeko asmoagaz, eraberritze prozesuari ekin dio taldeak. "Aurten hasi gara, eta astiro-astiro gauzak aldatzea da gure asmoa", dio Josu Atxotegik, elkarteko koordinatzaileak. Atxotegik hamar urte inguru daramatza txirrindulari elkarterentzat beharrezkoak. Garai berrietara egokitzeko asmoz, aldaketa metodologikoa egin dute elkartean; "urteek aurrera egiten dute, eta belaunaldi aldaketa egitea garrantzitsutzat jotzen dugu", nabarmendu gura du Atxotegik.

Aurtengo denboraldian Eneko Lejarreta gazteak José Alcibar ordezkatu du eskolako arduradun legez; 30 urtean izan da Alcibar eskolako arduraduna.

### Eskoziarrekin trukea

Gazteak taldera hurreratzeko asmoz, Trukea Gurgpilekin izeneko ekimena antolatu dute udarako. Lejarretaren berbetan, ekimena "berritzailea" da. Batetik,

martitzenean hasiko diren udalekuak antolatu dituzte. Monitore lanetan bi eskoziar arituko dira, eta gazteek, ingelesez ikasteaz gainera, hainbat txirrindularitza diziplina probatuko dituzte: "Errepideaz gainera, gazteak mendiko bizikletagaz eta pistan arituko dira". Josu Atxotegik azaldutakoaren arabera, 15 gazte eman dute izena ekimenean, eta azpimarratu duenez, "oso pozik" daude ekimenak izan duen harreragaz.

**Gaur dira heltzekoak trukerako etorri diren 13 txirrindulari eskoziarrak**

**15 gazte eman dute izena Trukea Gurgpilekin udalekuetarako**

Bestalde, trukea antolatu du elkarte durangarrak Eskoziako federazioagaz. Gaur heltzekoak ziren 13 eskoziar gazte, uztaila bertan igarotzeko asmoz; ordainetan, abuztuan durangarrak Eskoziara joango dira. "Esperientzia pertsonal polita

izateaz gainera, txirrindulari legez hazi egingo dira", nabarmendu du Atxotegik.

Gazteen artean txirrindularitza sustatzea ere gura du elkarteak; Durangoko eskolekin hitzarmena sinatzeko asmoa dute, Atxotegiren arabera. Horrez gainera, datorren denboraldiari begira "aurreikuspen positiboak" dituzte taldeko arduradun biek. ■ A.Maldonado.

**Durangoko eskolekin hitzarmena sinatzeko asmoa dutela aurreratu du Josu Atxotegik**



G. Fergusonek bigarren amaitu zuen Gipuzkoako Itzulia

## Aralarrera mendi irteera lurretako Zaldai taldeak antolatuta

lurretako Zaldai mendi taldeak udako lehenengo mendi irteera antolatu du. Zapaturako Aralarrera mendi irteera antolatu dute iurretarek. Lizarrustitik irten, eta Irumugarrieta (1.421 m) tontorrera joatea da asmoa; ondoren, Lizarrustira itzuliko da taldea. Horrez gainera, inguruan bazkaltzeko aukera egongo dela nabarmendu du mendi taldeak. Irteera goizeko 8:00etan izango da, Andaparapetik, eta kotxeetan hurbilduko dira Lizarrustira. Beste hainbat legez, lurreta Eleizateko banderaren mendeurrenaren baitan kokatu dute ekimena. ■ A.M.

## Bizkaiko txirrindularitza probak, etzi

Domekan, Bizkaiko bi txapelketa jokatuko dituzte. Lehenengo goizean izango da, 10:30etik aurrera. Gazteen errepideko txapelketako proba lehiatuko dute; 111 kilometroko ibilbidea egin beharko dute txirrindulariek. Proba Zornotzatik abiatuko da; 80 txirrindularirik parte hartuko dutela aurreikusiko dute antolatzaileek. Bestalde, arratsaldean, kadete mailako neska eta mutilen taldekako erlojuaren aurkako txapelketa jokatu dute. Erorio eta Zaldibar artekoa izango da ibilbidea; proba 16:00etan hasiko da. Antolatzaileraren arabera, 30 talde parte hartuko dute; Bizkaiko talde gehienak tartean. ■ A.M.

## Zapatuan jokatuko dituzte Oizpeko finalak

Bihar jokatu dute Oizpe pilota txapelketako finalak; 17:00etan hasiko dira partidak. Nagusien mailako finaleko protagonistak Ander Antxia eta Asier Berasaluze izango dira. Partida Lau t'erdiko muga barruan jokatu da. Abadiñarrak 22-7 menderatu zuten Jaunenea finalaurrekoan. Berrizarrak beste horrenbeste egin zuten Amantegi abadiñarraz; finalerdi hori 22-9koagaz amaitu zuten. Orain arte birritan jokatu dute elkarren kontra Berasaluzek eta Antxiak, eta abadiñarra nagusitu da bi partidetan. ■ A.M.

# Urkiolako Igoerarik berriz ez antolatzea erabaki dute

Pilotuek ikuskizun ona eskaini arren, ikusleek izandako jarrera "lotsagarriak" bultzatu ditu DR eskuderiakoak erabaki hori hartzera.



Auto-gidariek eskainitako ikuskizuna ikusleen jarrerak ilundu zuen. Kepa Santacoloma

**D**urangalde Racing elkarteak Urkiolako Igoera gehiago ez antolatzea erabaki du. Aketza Santacoloma eskuderiako zuzendariaren azalpenen arabera, ikusleek proban izan zuten jarrerak bultzatu ditu erabaki hori hartzera. Joan den zapatuan, ekainaren 25ean, jokatu zen azkeneko proba. Berreskuratu zutenetik, jarraian ospatzen zen laugarren biderra izan zen joan den zapatukoa.

lazko edizioan ere arazoak izan zituzten ikusleen jarrera zela-eta. Hala ere, 15. Urkiolako Igoera honetan geraturikoa "gehiegizkoa" izan zela salatu du Santacolomak. Ingurua "guztiz" zikitzeaz gainera, antolatzaile, bizilagun zein ertzainekin izandako jarrera aipatu du eskuderiako arduradunak. "Errespetu

faltaz gainera, gure lana oztopatu dute". Nabarmenezkoa da probaren hasiera atzeratu egin behar izan zutela: "Ikusle batzuen autoak errepidean zeu-

**Pañellaren barqueta izan zen azkarrena; turismoetan, Ramirez**

**Etenaldia eta gero, probaren laugarren aldia zen azkeneko hau**

den, eta garabiekin kendu behar izan genituen hasi izateko".

## Pronostikoak bete ziren

Kirol arloan, ostera, pronostikoak bete ziren. Sergi Pañella pilotu kataluniarraren barqueta izan zen azkarrena; bigarren igoera ofizialean lorturiko 01:47:689ko denboragaz gailendu zen. Iraola eta Quesadak osatu zuten podiuma. Turismoetan Aitor Ramirez izan zen azkarrena; 01:56:021an burutu zuen igoera. Aitor Arakistain eta Lebeiti durangarrak osatu zuten podiuma. Goizean eman zitzaion hasiera motor festari, autoen prestaketagaz. Santacolomak azaldutakoaren arabera, "jende asko" hurbildu zen Landako gunera, eta oso pozik daude jendearen erantzunagaz. ■ A.M.

## Lejarreta Kanadan dago, Munduko Kopako IV. Proban

Txirrindulari berriztarra Legution jokatu zuten Euskadiko Opena irabaztetik dator

Iñaki Lejarreta txirrindulari berriztarra Munduko XC Kopako laugarren proban parte hartuko du asteburuan. Astebete geroago, uztailearen 9an, txapelketa bereko bosgarren proba jokatu dute; Winhamen (AEB) izango da hori. Bi proba horietan parte hartuko duen Orbea talde-

**St. Anne mendian jokatu da Munduko Kopako proba hau**

ko txirrindulari bakarra izango da Lejarreta. Zirkuitu berean jokatu zen iazko Munduko Txapelketan, eta berriztarra 31. postuan amaitu zuen.

Munduko Kopako hiru proba jokatu dira orain arte. Lehengo Hegoafrikan izan zen, Pietermaritzburgen; 7. postuan amaitu zuen berriztarra. Bigarren proba Ingalaterran izan zen, hirugarrena, berriz, Alemanian; azken proba horretan, 12. postuan amaitu zuen Lejarretak. Txirrindulari berriztarra sasoiko dago; ekainean parte hartu duen hiru probetako irabazlea izan da, hain zuzen ere. ■ A.M.

**Mikel Bilbao**  
•Radio Euskadiko kazetaria



## Asterix

# Adituarentxokoa

Datorren domekan horrenbeste itxarondako buruz buruko finala jokatu da, pilotazaleentzako aste konplikatu eta zoroen ondoren. Galdu ala irabazi, Xala pilotaren historiara pasatuko da. Lekuindarrak bere enpresari eta LEPM ligari aurre egin die, eta pilotaren hitzordu hori jokatzeko lortu du. Xala "Asterix"-ek trinketera bueltatzea ere pentsatu zuen, Aspe utzi eta bere jatorrietara bueltatzea. Iparraldeko pilotariarentzat ohore kontua zen. Finalean egoitea merezi zuen eta jokatu egingo zuen, kosta ala kosta. Finala uztailearen 3ra atzeratzen bazuten, jokatzeko moduan egongo zela zioten txosten mediko batzuek lagundu diote. Denborak arrazoia eman dio; joan zen astean jokatzeko prest zegoen.

Xala ez da bakarrik egon borroka horretan. Aspeko pilotariak idatzi bat sinatu zuten bere alde. Idatzi hori funtsezkoa izan zen Aspek erabakia aldatzeko eta Xalari Haimarren kontra jokatzeko. LEPMren eta Asperen lehen erabaki txapuzeroa albo batera utzita, Xalak historia egin du. Asterixek legez, urguiluari heldu zion pilotako estamentu guztiei aurre egiteko. Pilota munduko jendeak idolo berria dauka. Ez izan zalantzarik; domekan Xalak arinago ezagutu ere egiten ez zuten zale askoren babesa edukiko du. Asterixek domekan finala jokatu du, baina garrantzitsuena zera da; urte askoren ondoren eta txarto hartutako hainbat erabakien ondoren, irizpide ekonomikoak albo batean utzi eta kirolaren logikak irabazi duela. Hori guztia gure heroia borrokari esker, frontoietako Asterix, monsieur Xala.

## Gaur hasiko da Zaldibarko areto futbol maratoia

Udako Sanandres jaien aurrekari izan ohi da maratoi hau; 21. biderra du aurtengoa

Gaur hasita domekara arte, Zaldibarko areto futbol maratoia jokatu dute; ekimen hau ospatzen den 21. biderra da aurtengoa. Txapelketako finalerdiak eta finala domekan jokatu dira. Guztira, 2.450 euro egongo dira jokoan; trofeoaz gainera, maratoia irabazten duen taldeak 1.000 euroko saria jasoko du.

Txapelketako antolatzaileen berbetan, ekimena egonkorra da, hori dela-eta, "azken

momentura arte" jendea ez da apuntatzen; aurreko edizioetan legez, 25 talde inguru apuntatuko direla aurreikusten dute. Udako Sandres jaien aurrekari izan ohi da areto futbol maratoi hau. ■ A.M.

**Finalerdiak eta finala domekan jokatu dituzte, kiroldegian**



Giro itzela bizi ohi da Zaldibarko maratoian. Antonio V

piso 

# DURANGO

## 10 URTE ZUREKIN KONPROMETITUTA Inmozionatu gurekin



Ez dugu nahi zu gustura  
uztea bakarrik, harritu  
egin nahi zaitugu

Liderrak gara, zure  
konfiantzari esker


Gozatu egiten dugu  
lana ondo eginez



Iban Otero Ana Isabel Rekalde Banesa Otero Ainhoa Olaso Josu Olabarria



Enpresa lankideak, zerbitzurik onena eskaintzeko



# Garaiko Triatloia jokatu da, lehenengoz, domekan

Triatloi taldea iaz sortu ondoren, antolatu duten lehenengo proba da domeka honetako. Gogortasuna da lehiaren ezaugarri nagusia



Geroago eta zale gehiago dauka triatloiak Durangaldean.

Euskal triatloi zirkuituko hainbat probatan aritu ondoren, 2011 urterako ekitaldi berezia antolatu dute Garai TT ko kideek. Hain zuzen ere, domekan Garaiko I. Triatloia lehiatuko dute. Probak izandako harreragaz "pozik" agertu da Jon Sarasua, Garai TTko kidea. Garaiko proba bere gogortasunagatik bereizten da, batez ere. Mutrikutik abiatuko da proba, goizeko 9:00etan; Saturrango hondartzan 2 kilometro egingo dute igeri parte-hartzaileek. Gero, Mutrikutik Garaira 90 kilometroko ibilbidea egingo dute bizikletan. "Gogorra izan arren, zati polita da bizikletaz egingo dena", nabarmendu du Sarasuak. Amaitzeko, parte-hartzaileek 21 kilometro egin beharko dituzte ari-

**Guztira, 50 lagun inguru lehiatuko dira Garaiko triatloian**

neketan. Proba hemen erabakiko dela uste du Sarasuak. "Probako zatirik gogorrena da, alda-pa asko ditu-eta. Lehenengo Garaiko triatloi honetan 50 pertsona inguruk parte hartuko dute; Durangaldekoak zein kanpokoak izango dira, gainera. ■ A.M.

## Emilio Baquéren omenezko II. Clinic-a bihar, Landakon

lazko moduan, Emilio Baqué zenaren omenezko Clinic-a antolatu du Tabirakok. Itsaso Gartzia saskibaloia taldeko lehendariak azaldutakoaren arabera, ikastaro honek entrenatzaileen formakuntza indartzea du helburu. II. Clinic honetan, Sito Alonso eta Victor Lapeña eskainiko dituzte hitzaldiak. Gartziaren berbetan, "oso pozik" daude antolatzaileak ekimenak izandako harreragaz; 65 pertsonak eman dute parte hartzeko izena, "itxaroten genuen baino gehiago". Zapatuan 17:00tik aurrera ekingo diote II. Clinic-ari.

**Sito Alonso eta Victor Lapeña entrenatzaileek eskainiko dute**

Bestalde, astelehenean IV. Tabirako Sukia udaeskola hasi zen. Uztailaren 8ra arte iraungo du ekimenak. 7-14 urte bitarteko 180 umek eta 35 entrenatzailek parte hartuko dute. Gartziaren arabera, ekimenak geroago eta arrakasta handiagoa du, eta, "zoritarrez", ume batzuek ezingo dute ekimenen parte hartu. Saskibaloia irakasteaz gainera, Tabirakoren filosofia hedatzea da ekimenaren helburua. ■ A.M.

## Agenda

### TRITATLOIA GARAI

Domekan, 9:00etan, Mutriku-Garai

### MENDIA

#### ARALARRERA IRTEERA

#### Lizarrusti -

#### Irumugarrieta (1421m)

Zapatuan, 8:00etan, Andaparapetik.

### SASKIBALOIA

#### II. EMILIO BAQUE CLINIC-A

#### -Sito Alonso: "Joko erasokorra kanpoaldeko lau jokalarigaz"

#### -Victor Lapeña: "Blokotik abiatutako joko erasokorra"

Zapatuan, 17:00etan, Landakon

### ARETO FUTBOLA

#### 21.MARATOIA

#### Uztailak 1, 2 eta 3

Zaldibarko kiroldegian

### PILOTA

#### OIZPE TXAPELKETA (finala)

#### Antxia - Berasaluze

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

### TXIRRINDULARITZA

#### BIZKAIKO TXAPELKETA

#### Kadeteen taldekako erlojuaren aurkakoa

Domekan, 16:00etan, Elorrio-Zaldibar (14,5 km)

## Espainiako erlojuaren aurkakoa, Iturriaga garaile

Castellonen izan dira Espainiako txapelketak. Errepideko proban erori egin zen abadiñarra

Ekainaren 23 eta 26 bitartean, Espainiako txirrindularitza txapelketak jokatu ziren Castellonen. Erlojuaren aurkako emakumezkoen proban, Eneritz Iturriaga abadiñarra izan zen azkarrena; modalitate horretan lortzen duen laugarren urrezko domina da txirrindulari abadiñarraren-

**Illart Zuazubiskar gazteak bosgarren postua lortu zuen**

tzat. Aurretik 2002, 2005 eta 2006 urteetako txapelketak ere irabazi zituen. Errepideko proban, aldiz, zorte txarragoa izan zuen; lasterketa erdian lurrera jauzi eta min hartu eta gero, lehia uztea erabaki zuen. Iturriagak bere webgunean adierazita koaren arabera, abadiñarra pozik dago Espainiako Txapelketan lorturiko emaitzagaz. Euskadiko Txapelketa irabaztetik zihoan Castellonera txirrindulari abadiñarra, gainera.

Bestalde, Illart Zuazubiskar abadiñarrak bosgarren bukatu zuen 23 urtez azpiko erlojuaren aurkako proban. ■ A.M.



Espainiako Txapelketan irabazle izan da Iturriaga, laugarrenez.

**Hurrengo eraikuntza**

**DURANGO**

**IURRETA**

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73  
Iurreta • www.zarateyelexpe.com

Elorrioren aukera onak

R.P.S. 21405

**A. Urreta** podólogo

**IMQ AEGON SERSANET SANITAS**

- Oinetako patologiak
- Neurriren egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

**Podólogo** 188. Elkargokidea

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04



laguntzaileak



ABADIÑOKO UDALA



ATXONDOKO UDALA



DURANGOKO UDALA



ELORRIOKO UDALA



MALLABIKO UDALA

# LAUHANKA >



Batzuetan, rolak aldatu eta untxia ibiltzen da katuaren atzetik

Arazorik handiena untxiak sustoren bat hartu eta beldurtzen bada sortu daiteke

Txakurra izaeraz oldarkorra bada, hasieratik kaiola erabiliko dugu

## Untxiak arazoak izan ditzake etxeko beste maskotekin batera bizitzeko

Maskota bat baino gehiago etxean izateak itxaron bako egoerak sortu ditzake sarritan, eta horixe bera gertatu daiteke untxia etxean sartzean; kontu handiz jarraitu beharko dugu animalien hartu-emanan.

Ingurune librean ehiztaria eta ehizatua izan daitezkeen animaliak, familia bereko maskota bihurtu daitezke etxeetan. Hau, berez, ez da ezinezkoa. Hori bai, etxera animalia berria erotera-koan lehenengo kontaktua landu egin beharko dugu, eta, gainera, geroko hartu-emanan ere jarraitu beharko dugu, kalterik sortzerik gura ez badugu. Untxiak maskota izatea geroago eta ohikoagoa da, eta katu edo txakur baten edukiz gero, etxe lasaia infernu bilakatu daiteke.

### Katuagaz

Lehenengo eta behin, pentsatuko duguna zera da: katuak untxia ez harrapatzeko ahalegi-

na egin behar genuke. Baina kontua da batzuetan rolak aldatu eta untxia ibiltzen dela katuaren atzetik. Normalean, saiakera horiek ez dute kalte handirik sortzen, egoera kontrolatuta duela uste duenean untxiak bakea ematen diolako katuari.

Arazorik handiena untxiak sustoren bat hartu eta beldurtzen bada sortu daiteke. Modu horretara katuaren sen ehiztaria piztu dezake, eta jabeak egoera segituan eten beharko du. Egokiena untxia kaiolan sartzea da, eta gerora babesa emango dion txokoren bat eskaintzea ere bai. Kaiolan dagoela, elkar usainduz ezagutzeko beste aukera bat edukiko dute.

Denbora bat igarota, egokitze-fasea hasiko dugu, eta hartu-eman zuzenerako aukera eskainiko diegu biei. Keinu oldarkorren bat soilik ikustean moztuko dugu saiakera. Badaezpada, katuari labur ebakiko dizkiogu atzazkalak.

### Txakurragaz

Txakurra izaeraz oldarkorra bada, hasieratik kaiolaren bidea erabiliko dugu. Bere hurbilketa intentzio txarrik bakoia dela ikusiz gero, saritu egingo dugu txakurra fereka eginez.

Behin biak batera ipinita, hasierako momentuetan sekula ez ditugu zaintzarik barik biak bakarrik utziko.





# MUSIKAIRE

UDAKO JAIALDIAK ELORRION 2011  
> UZTAILAREN 1etik 23ra <

> Soul / Uztailak 1

## SOUL TELLERS

> Tango Klasikoa / Uztailak 2

## ARA MALIKIAN & FERNANDO EGOZKUE

> Antzerkia / Uztailak 3

## MARKELIÑE

> Kale Antzerkia / Uztailak 4

## NINO COSTRINI

> Folk / Uztailak 8

## JOSEBA TAPIA

> Flamenko / Uztailak 9

## DIEGO CORTES

> Musika eta dantza / Uztailak 10

## OREKA TX & KUKAI & AMAREN ALABAK

> Antzerkia / Uztailak 15

## COMPAÑIA PELMÁNEC

> Antzerkia / Uztailak 16

## MORFEO TEATRO

> Zirkoa eta dantza / Uztailak 17

## CIRCUS-TANZIA

## MULATU ASTATKE

> Ethio Jazz / Uztailak 22

## AMSTERDAM KLEZMER BAND

> Musika klezmer / Uztailak 23



www.musikaire.com





# EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



## HEGALUZZEA

Betiko usadioa jarraituz arrantzatuak, freskoak eta kalitatearen garantia osoaz Eusko Labela duten Hegaluzea eta Hegalaburra kalitate goreneko arrainak dira, banaka-banaka, antzinako tresneria erabilia harrapatutakoak, horrela, itsasoko flora eta faunarekiko erabateko errespetua bermatuz.

EAEko arrantza portuetan, pertsona adituek, untzien hustuketa egiten den une berean egiten dute hautaketa, tamainaren eta freskotasunaren irizpideei jarraituz, arrain onenak soilik aukeratu eta bereiztuz.

### Honela ezagutzen da

Arrainak, bereizgarri gisa, isatsean ziurtasunerako zigilu zuri aldezin bat darama honako datuak bilduz: lehorreratu eta kontrolatua izan den portuaren izena; zein espezieakoa den; kontrol zenbaki bat zein untzik harrapatu, noiz lehorreratu eta hautaketan aritu den kontrol-taldea zein izan den jakiteko eta bere kalitate gorena ziurtatzen duen Eusko Label-Kalitatea ezaugarria. Gainera kontrol zenbakiaren eta webaren bidez jakin ahal izango da gainera barkuaren izena, espeziea, deskarga portua, kofradia, deskarga data, zonaldea eta arrantzatze modua.

### Kalitate kontrola

EAEko arrantza portuetan, pertsona adituek, untzien hustuketa egiten den une berean egiten dute hautaketa. Tamainaren eta freskotasunaren irizpideei jarraituz, arrain onenak soilik aukeratu eta bereizten dituzte. Ondorengo ezaugarriak izan behar dituzte: espezieak Hegaluzea edo atunzuria (*Thunnus alalunga*) eta Hegalaburra edo zimarroia (*Tunnus thynnus*). Neurria edo gutxieneko tamaina: "Hegalaburra" 8 kilotik aurrera, eta "Hegaluzea" 4 kilotik aurrera. Portuak: Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-portuak. freskotasun mailak: "Apartekoa" eta "A".

### Datuak

2010ean 513.982 kilo hegalabur identifikatu ziren eta 1.868.263 kilo hegaluze. Hasi berri den kanpainaren helburua da datu hauek hobetzea eta gero eta identifikatutako produktu gehiago merkaturatzea.



# ZOZKETA

**BIALDU ERREZETA BAT ETA IRABAZI EUSKO LABELDUN PRODUKTUEN OTZARA!**

**Bi hilerik behin egingo den zozketan errezeta onenak irabaziko du otzara!**

**\* Bidalitako errezeta guztiek izango dute opari bat.**

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" produktuekin egindako errezeta bat zure datuekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

**Erref.: "Eusko Label Saskia". Anboto Astekaria, Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta**

\* Eusko Labellek jasotako errezeta guztien erabilpen eskumena izango du



**anboto** >  
komunikabideak

# AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Uztailaren 1ean, 00:00etan, Atxondoko Gaztetxean

## SERMOND'S + KILAUEA + SOSTENDUNAK

Durungaldeko rock taldeen kontzertuak antolatuta dituzte Atxondoko jaietako bigarren bariku gauerako: urte hasieran kaleratu zuen diskoan batutako punk-rock doinu bizkorrak eskainiko ditu Sermond's taldeak, eta Atxondoko Gaztetxean kontzertua eskainiko dute Kilauea eta Sostendunak taldeek ere.

### ANTZERKIA

#### DURANGO

>> Uztailaren 4an, XII. Uda Kalean Bizi jaialdiaren barruan, Ganso & Cía taldearen **Mediope-*lo***, 20:00etan udaletxeko plazan.

#### ELORRIO

>> Uztailaren 3an, Musikaire jaialdiaren barruan, Markeliñe taldearen **Anomalia magnética**, 22:30ean plazan.  
>> Uztailaren 4an, Musikaire jaialdiaren barruan, **Humanus comicus**, 19:30ean plazan.

### BERBALDIA

#### DURANGO

>> Uztailaren 1ean, **Ricky Dávila**ren hitzaldia, **I. Begira** argazki topaketaren barruan, 19:00etan, Arte eta Historia Museoa.  
>> Uztailaren 7an, I. Begira topaketaren barruan, **GetxoPhotori** buruzko hitzaldia, 19:00etan, Arte eta Historia Museoa.  
>> Uztailaren 8an, Eugenio Garcia-**ren nutrizio pranikoari** buruzko berbaldia, 19:30ean, Baranhandia yoga zentroan. Izena emateko: 634 448 599.

### DANTZA

#### DURANGO

>> Uztailaren 3an, **Udako dantzaldia**, 19:00etatik 21:00etara, Ezkurdiko plazan.

### ERAKUSKETA

#### DURANGO

>> Uztailaren 1etik 15era, Jesus Mari Arruabarrenaren **Ckristopaganía**, Ezkurdiko aretoan.

### JAIK

#### ATXONDO

>> Uztailaren 1ean, **tortila eta bakailao txapelketarako** jaiak aurkezteko azken ordua, 20:30ean. Ondoren, **Arantxa eta Pantxoren emanaldia**, plazan. 00:00etan **herriko taldeen, Kilauea, Sermond's eta Sostendunek** taldeen emanaldiak, Gaztetxean.  
>> Uztailaren 2an (Gazte Eguna), 13:00etan Gaztetxean hasita **poteoa**. 14:30ean **paella jana**, frontoian, eta **olinpiadak** ondoren. 18:30ean **Motxallaband elektrotxarangkak** alaitutako poteoa, herriko plazan hasita. 22:30ean **Gazte Itzala**

eta **Zarraparra** taldeen kontzertuak, gaztetxean. 23:30ean **erromeria** plazan. 00:00etan suak, eta **errepresaliatu politikoaren aldeko kalejira**, ondoren.

>> Uztailaren 3an, **Umeen pilota partidak**, 12:00etan. **Igel txapelketa**, 17:00etan, Itziar tabernan. 19:30ean **pilota-bertso saioa**. Ondoren, **saiheskia**, plazan. **Txopoaren jaietsiera**, eta San Pedro **jaien errepaso bideoa**, ondoren, gaztetxean.

#### BERRIZ

>> Uztailaren 1ean, Umeentzako **jolas parkea** eskolako patioan eta Elizondo plazan, 12:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. **Karta joko lehiaketa** 18 urtetik beherakoentzat, 17:00etan, udaletxeko parkean. 18 urtetik beherakoentzako **Igel txapelketa**, 19:00etan. 18 urte artekoentzako **tortilla txapelketa**, 20:00etan. Gazteentzako **bolo txapelketa**, 22:00etan. **Luhartz** taldearen erromeria, 22:30ean.  
>> Uztailaren 2an, 11:30ean **Trikitilarien kalejira**ren hasiera

Olakuetan. 12:00etan **meza nagusia eta Dantzari Dantza**. 13:30ean **I. Jose Ramon Korpion Bakailao lehiaketa** udaletxeko lorategian. **Jubilatu bazkaria**, 14:00etan, kiroldegian. Euskal Erromeria Eguna: **Herri-bazkaria**, 14:30ean udaletxeko lorategian, eta **Ansoregi** taldeagaz erromeria 16:30ean. **IX. Oizpe Pilota txapelketaren finalak**, frontoian. 20:00etan, **Dantzari Dantza**. 21:00etan, **Tortilla lehiaketa** udaletxeko lorategian. 22:30ean, **Laiotz taldeagaz dantzaldia**. **Su artifizialak** 23:00etan, eta **Laiotz taldeagaz dantzaldia**, Elizondo plazan.

#### ELORRIO

>> Uztailaren 1ean, **Soul Tellers**, 22:30ean Tola jauregian, Musikaire jaialdiaren barruan.  
>> Uztailaren 2an, **Ara Malikian & Fernando Egozkueren boskotea**, 22:30ean Tola jauregian, Musikaire jaialdiaren barruan.  
>> Uztailaren 8an, **Joseba Tapia**, 22:30ean Argiñetan, Musikaire jaialdiaren barruan.

### PROIEKZIOAK

#### DURANGO

>> Uztailaren 1ean, **I. Begira** argazki topaketaren barruko proiektzioa, 22:00etan, Plateruenean.  
>> Uztailaren 3an, **I. Begira** argazki topaketaren barruko proiektzioa, 20:00etan, Plateruenean.

### TAILERRAK

#### DURANGO

>> Uztailaren 1, 2 eta 3an, **I. Begira** argazki topaketaren barruan, Ricky Dávila gidaturiko **Argazkilaritza ikuskera pertsonal bezala** tailerra, Pinondo etxean.  
>> Uztailaren 2 eta 3an, **I. Begira** argazki topaketaren barruan, Txelu Angoitiak gidaturiko **Sortze-planteamendutik ediziora** tailerra, Pinondo etxean.



Uztailaren 4an, 19:30ean, Elorrioko plazan

## HUMANUS COMICUS

Umorea da Niño Costrini argentinarren kaleko antzezlan honen ardatza, eta zirkuko teknikak ere baliatzen ditu. Clown-aren bitartez eta xelebrekeriekin publikoa barrez gozarazten 16 urte daramatzen artistaren hau da aurtengo Elorrioko Musikaire jaialdiaren barruko lehenengo kale antzerki emanaldia. Plazan eskainiko du saioa.

## uztaileko agenda



**Uztailak 2** • Zaldai mendi taldea  
08:00 Mendi irteera Lizarrusti-Irumugarrieta. Irteera "Andarapen". 4 ordu.

**Uztailak 2-3-9-10** • Iurreta Txirindulari Elkarteak  
08:00 Hainbat ibilbide (72-126 km)

**Uztailak 2-3-4** • Amatzako Jai Batzordea  
2an, 19:00 Donien Atxaren igoera. 19:30 Auzoko dantzarien azken entsegua.  
20:30 Tortilla txapelketa. Parte-hartzaileak mozorrotuta joan behar dira.  
21:00 Herri-afaria txapelketako tortilekin. Ondoren bartsolariak.  
3an, 11:00 Trikitilarietako kalejira. 11:30 Meza nagusia. 12:00 Amatzako auzoko dantzariak.  
Ondoren luntxa. 15:00 Herri-bazkaria. Ondoren karta lehiaketa, igel txapelketa, umeentzako jokoak, lehiaketa: "Amatza ezetzen".  
4an, San Martin eguna. 11:30 Meza nagusia uren bedeinkazioagaz. Ondoren luntxa.

**Uztailak 3-10** • Emakumeen Bira Ziklismo K.E.  
3an, 14:00 Elorrio-Zaldibar taldeko erlojupeko txapelketa (14 km)  
10ean, Errioxako Emakumeen I. ziklismo garaikurra (35 km)

**Uztailak 8** • San Andres auzoko jaiak. Santa Isabel Eguna  
12:00 Meza Santua. Ondoren luntxa.

**Uztailak 10** • Arriandin San Kristobal eguna Azkorako baselizan  
19:00 Meza santua. Jarraian, sardinak, gozokiak eta edariak batuko dira.

### OHARRA

**Ibarretxe kultur etxeko ordutegia**  
Ekainaren 27tik irailaren 9ra Ibarretxe kultur etxea goizez irekiko da 08:30etik 13:30era. Abuztuaren 1etik 12ra itxita egongo da. Herri bibliotekan uda guztirako maileguak egiten dira.

## IURRETAKO UDALA

### ZINEMA

#### DURANGO

Zugaza

#### Transformers 3 3D

Zuzendaria: Michael Bay

barikua 1: 18:00/21:30

zapateria 2: 18:00/21:30

domeka 3: 18:00/21:30

astelehena 4: 18:00/21:30

martizona 5: 20:00

Umeentzat

#### Cars 2 3D

Zuzendaria: Brad Lewis

eguaztena 6: 19:00


eguna 7: 19:00

barikua 8: 18:00/20:30

# DENBORAPASAK

## ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta

	Ahuntz basak	▼	Oihal txikia	▼	Min
	Estatu, herri		Uretako ugaztun	▼	
	Morro, neskame	▶			
	Zorrotz				
Irentsiak	▼	Saski mota	▶	▼	
Etanola		Argiro			
▶					
*Bizkaiko mendia	▶				
Lurrin					
▶					
				Etxearen amaieran	▶
				Lehortu	
Kriptona	▶		Arrei deitzeko	▶	
Kakatsuak			Aunitz, ugari		Nasak, moilak
▶					
Pl, suil mota	▶				.Bokala
Ba... baneuka					Garra
▶					
Argi, hitz elkarketan	▶				
Ikatz bihurtuak					
▶					



**Jonek** ekainaren 29an 8 urte egin zituen, eta **Elenek** uztailak 2an 5 urte egingo ditu. Zorionak eta musu handi bat etxeko mutil jatorri eta neska "xalada"-ri. Mundialak zarete. Etxekoak.



Zorionak **Amaia!** Durangoko neska jatorra, biharko egunez jaioa, 'senzila a la par que elegante' doa eta atsegin du janari txinoa. Laneko kideen partez, besarkada beroa!



**Iker eta Leire Berrojalbizek** 9 urte bete zituzten ekainaren 21ean. Musu potoloak lehengusina Matxalen, izeko eta osabaren partez. Ondo pasatu oportretan!



Ekainak 28 eta 28 urte e!  
Badoiezela aurrera, baina lasai beti jarraituko dozula gazte! Segi irrifartsu! 28 muxu potolo neska lagun eta familiaren partez!



**Oier eta Noemi** uztailaren 2an ezkonduko jakuz. Zorionak eta besarkada handi bat Durangoko koadrilaren partez! Ondo pasatu Afrika aldean, pareja!



Zorionak **Araitz!** 15 egunero zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako Bixente Kapanaga 9an.

## AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



**Abadiño** (Eroski) - Hileko lehen ostiraletan 17:00-21:00  
- **Traña-Matieta** - Eguaztenetan 10:00etatik aurrera  
**Durango** - Zapatu goizetan  
**Zornotza** - Domeka goizetan

## ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga..... 0,80 euro  
Zebolletak..... 1,50 euro/tx  
Azalgak..... 1,50 euro/kg  
Espinakak..... 1 euro/tx  
Piperrak... 2,50 euro/dozena  
Iderrak..... 5-6 euro/kg  
Bainak..... 5 euro/kg  
Arrautzak..... 3,60 e/dozena  
Idiazabal gazta....16,50 e/kg  
Espelta ogia..... 3,60 euro

		6		8		7	3
	3	7					
				2			4
				8		6	
2	5	3					
9			4	1			3
3				1			
	9			5			
7			6			5	8 2



**Irati Hernandezek** 2 urtetxo bete zituen ekainaren 29an. Zorionak eta pa potolo bat zure familiaren partez!

## BOTIKAK >

**Barikua, 1**  
09:00-09:00  
• Campillo (Montebideo 24- Durango)  
09:00-22:00  
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)  
**Zapatua, 2**  
09:00-09:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
09:00-13:30  
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)  
• Campillo (Montebideo 24- Durango)  
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)  
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)  
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)  
**Domeka, 3**  
09:00-09:00  
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)  
09:00-22:00  
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)  
**Astelehena, 4**  
09:00-09:00  
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)  
**Martitzena, 5**  
09:00-09:00  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)  
09:00-22:00  
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)  
**Eguena, 7**  
09:00-09:00  
• Navarra (Artekale 6 - Durango)

## TELEFONO INTERESGARRIAK >

**SOS Deiak**.....112  
**DYA** .....94 620 28 00  
**Gurutze Gorria** ....94 681 09 49  
**Osakidetza** .....94 600 72 00  
**Ertzaintza** .....94 466 93 00  
**Suhiltzaileak** .....112

**GARRAIOAK**  
Euskotren .....902 54 32 10  
Bizkaibus .....94 448 40 80  
Pesa .....902 10 12 10  
Continental Auto ....945 286 466

**TAXIAK**  
Abadiño .....946 814 470  
Matieta .....606 459 988  
Durango Geltokia ....946 811 001  
Elorrio Geltokia ....946 820 040  
J.L. Uriarte .....670 402 002  
I. Estebez .....670 678 273  
M Galeano.....946 582 854  
Iurreta .....946 201 565  
Taxi auzunea .....688 618 690

**UDALAK**  
Abadiño .....94 621 55 30  
Atxondo .....94 682 10 09  
Berriz .....94 682 45 84  
Durango .....94 603 00 00

Elorrio .....94 658 27 12  
Garai .....94 681 63 93  
Iurreta .....94 620 12 00  
Izurtza .....94 681 35 48  
Mallabia .....943 17 14 61  
Mañaria .....94 681 89 98  
Otxandio .....945 45 00 20  
Zaldibar .....94 682 70 16

**UDALTZAINGOA**  
Abadiño .....94 621 55 33  
Berriz .....94 682 40 36  
Durango .....94 603 00 10  
Elorrio .....94 682 02 18  
Iurreta .....94 620 08 88

**EGURALDIA >**  
25<sup>a</sup> **BARIKUA** ☀️  
30<sup>a</sup> **ZAPATUA** ☀️  
24<sup>a</sup> **DOMEKA** ☁️  
26<sup>a</sup> **ASTELEHENA** ☁️  
26<sup>a</sup> **MARTITZENA** ☀️

**ARIES** (martxoak 21 - apirilak 20)  
Kostatu zaizun arren, hartu diozu neurria lan berria-ri. Gero eta gusturago ibiliko zara aurrerantzean.

**TAURUS** (apirilak 21 - maiatzak 20)  
Ondo pasatzeko gogo handia daukazu; horretarako aukera izango duzu jaietan.

**GEMINI** (maiatzak 21 - ekainak 20)  
Beltzaren jartzea besterik ez duzu buruan? Horrela jarraituz gero, burmuina kiskaliko zaizu.

**CANCER** (ekainak 21 - uztailak 20)  
Asteon beharrez hasi eta gero, atsedeen hartzea komeni zaizu. Aste gogorra izango duzu.

**LEO** (uztailak 21 - abuztuak 23)  
Oporretara joateko aukera aurkeztuko dizu ezagun batek. Aprobetxatu egizu.

**VIRGO** (abuztuak 24 - irailak 23)  
Lagun berezi horregaz egoteko gogoz zabilta. Hala ere, berak ez dizu jaramon handirik egingo.

**LIBRA** (irailak 24 - urriak 23)  
Lortzerik itzaroten ez zenuen hori lortzeko aukera izango duzu asteon. Azken esfortzu hori egin.

**SCORPIUS** (urriak 24 - azaroak 23)  
Azken aldi muturtuta zabilta. Ahalegindu maizago irribarre egiten, komenigarria da.

**SAGITARIUS** (azaroak 24 - abenduak 23)  
Herria zaintzen geratuko zara uda honetan. Hurrengo udarako diru apur bat aurrezten saiatu.

**CAPRICORNUS** (abenduak 24 - urtarrilak 20)  
Helburuak lortzeko ahalegin berezia egin beharko duzu; inguruko laguntzarik ez duzu jasoko.

**AQUARIUS** (urtarrilak 21 - otsailak 21)  
Ez al zara asperten beti plan bera egiten? Ausartu zaitetz bestelako zer edo zer probatzera, ez dizu kalterik egingo.

**PISCIS** (otsailak 22 - martiak 20)  
Hainbeste denboran itzaroten egon zaren aukera heldu zaizu. Aprobetxatu egizu.

## Denborapasen SOLUZIOAK

2	8	5	6	9	1	7	4
7	1	3	4	5	8	2	6
9	6	4	1	7	2	5	8
5	3	7	2	1	7	8	9
8	4	1	9	6	7	3	2
6	2	9	3	8	5	4	7
4	6	8	7	2	3	6	1
5	1	2	5	1	8	7	3
3	7	6	5	1	9	2	4

K	V	U	I	Z	V	K	I
V	U	I	•	I	R	V	•
I	S	V	K	I	•	U	N
V	•	K	V	N	I	I	•
K	V	U	Z	V	K	V	K
•	O	X	I	•	R	K	•
E	X	•	N	I	V	S	U
Z	I	U	I	I	V	•	
V	I	O	H	O	K	I	V
N	V	A	Z	•	K	•	
I	H	E	S	•			
O	I	Z	V	N			
•	O	•	B	•			

# "Lehenago baino argazkizale gehiago dago gaur egun"

Zaldibarko udako jaien harira, egitaraua prestatu dute Ilargi argazkilari taldekoek; domeka honetarako Rallya antolatuko dute

Ilargi argazkilari taldeko egoitzan batu gara Delfin Zubizarretagaz. Argi gorri, negatibo eta likidoa barik, ordenagailua eta eskaneatzeko makina topatu ditugu; denbora aurrera doa. Hamar urte daramatza taldean Delfinek, eta badira 26 urte taldea sortu zela. Jaien bueltan Rallya eta argazki zaharren erakusketa eratu dituzte.

## Aurten ere antolatu duzue jaien bueltako egitaraua.

Argazki zaharren erakusketa joan zen asteburuan izan zen. Data horietan eskoletako jaia izaten delako egiten dugu; panelak ipintzen ditugu udaletxeko plazan. Argazki Rallya, berriz, domeka honetan egingo dugu. Emaizta eta proiektzioa hurrengo asteburuan izango dira. Oraindik ez dira jaiak hasi, baina beti jaien bueltan egiten ditugu ekimenak.

## Urtean zehar ere antolatzen al duzue ekintzarik?

Udako jaietan Rallya eraten dugu, eta negukoetan lehiaketa. Argazki zaharren erakusketa kalean egin dugu azken hiru urteetan, baina orain dela 10 bat urte ere aretoan egiten zen, koadroak erabiliz. Erakusketa hau da arrakastatsua, jendea erruz etortzen da. Beste erakusketa batzuk ere antolatzen ditugu urtean zehar, baina ez dute argazki zaharren arrakastarik.

## 25 urte beteta dituzue dagoeneko. Ibilbide luzea da hori...

Iaz egin genituen 25 urte. Zorte handia eduki dugu, izan ere, hasi zirenen arteak hiru edo lauk jarraitu egin dute. Rafa Iraetak, Jose Luis Fernándezek, Antonio Villanuevak eta beste hainbatek lan handia egin dute urteotan. Taldetxo bat mantendu izan da, eta jende berria ere sartzen joan da; jendeak eduki du zerikusia taldearen ibilbidean. Ni orain hamar urte hasi nintzen.

## Zelako esperientzia izan da?

Nire aurretik anaia ibili zen tal-

dean, eta berak uztean hasi nintzen. Gustua hartu nion argazkigintzari: argazkiak atera, inprimatu, erakusketak, lehiaketetan parte hartu lan-tzean behin...

## Itxia barik, zabala eiz duen taldea...

Hori da gure berezitasuna: herri mailan egiten direla gauzak; herriarentzat. Ekimenak edo norentzat izaten dira; adibidez, ikastekoan zabalak izaten dira. Ez gara bakarrik argazkizale talde bat, herrigintzan dabilen taldea baizik. Kanpoko jendeagaz kolaboratzea ere pozgarria izaten da, idazleren bategaz edo Gerediagagaz, esaterako. Gainera, gu udalak emandako laguntzagaz bizi gara eta, beraz, jasotzen dugunez eman ere egiten dugu.

## Teknologiak aurrera egin du azken urteotan.

Argazkigintza digitalak erraztasuna ematen du, eta merkeagoa ere bada. Batzuei betiko teknika gustatzen zaie; paperean ikustea. Nire ustez, digitala aurrerapen bat da. Merkeago tudenez, lehen baino argazkilari edo argazkizale gehiago dago orain.



## Ba al duzu lehentasunen bat gaiari dagokionez?

Niri natura ateratzea gustatzen zait; paisaiak, loreak eta lan-

dareak, batez ere. Xehetasuna bilatzen dut halakoetan. Bestalde, jendearen erretratuekin erreportajeak egitea atsegin dut. Gero, azalpen labur bategaz argazki-sorta hori [www.zaldiblog.blogspot.com](http://www.zaldiblog.blogspot.com) atarian publikatzen dut.

## Zer aterako zenioke argazkia? Ba al duzu ideien bat buruan?

Behin Alluitz inguruan nenbela, hemen ohikoa ez den lore bat ikusi nuen. Baina saiatu arren, harikaitz artean ez zen erraza argazkia egitea. Geroztik sarritan joan izan naiz, baina ez dut topatu; lore arraroa zen honako. Jendea Pirineotara ere joaten da bere bila! Lorpen bat izango litzateke niretzat lore horri argazkia egitea. Bestalde, gauean, izarrak marraztutako irudiak ere atera gura nituzke.

## Zuen ekintzetaz gainera, parte hartzen al duzue besteren baten?

Ekintza guztietara, ahal dudanean heinean, joaten saiatzen naiz. Hala ere, niretzat politenetakoa balkoitik balkoirako bertso saioa izaten da. Bertsolari onenetakoa izaten dira, eta lekua oso polita da halako gauza baterako. Alde zaharretan izaten da, Zaldua plazan. Kotxe barik, aulkiak ipini eta hiru etxetatik jarduten dute bertsolariak; antzinako ekitaldi baten antza izaten du saioak. Horretaz gainera, Haritza Rodriguezen antzerkiren bat ekartzen badute joango naiz ikustera, gustuko dut-eta.

## Gehitu gura zenuke zer edo zer?

Zaldibarko guztiak eta inguruak animatu gura ditut domekan hona etortzera, Argazki Rallyan parte hartzera.

## Delfin Zubizarreta •

Ilargi argazkilari taldeko kidea



Joxe Garaizabal  
Irakaslea

## Hator, hator, etxera!

Pentsa egizu orain hogeita hamar urte, gaztetan, guardia zibilek eroan eta gura dabena esan arte egurtzen zaituela. Urte batzuk kartzelan pasatu eta gero etxeratu zarela, nire lehengusuari gertatu moduan.

Eutsi egizu egun batean euren ezina tapatzeko presoak etxetik urrunen eroaten dabezela, sarri lekuz aldatu, bisita aukerak urritu eta senideei traba handienak jarri justiziaren izenean. Pentsa egizu gerra irabazi ostean, zure herria menderatu ezin eta zure herriko jauntxo batzuen laguntzagaz dena ETA dela esaten hasten direla. Hasi AEK, Egin, Euskaldunon Egunkaria eta beste dozena bat talde.

Sinestu egizu ezinaren ezinez Alderdien Legea sortzen dabela, eurek euretakoak nasai asko egiteko demokraziaren izenean. Pentsa egizu edozein egunetan zu zeu, sendieren bat, lagun bat edo ezagun bat eramaten dabela Espainia aldera, edozein aitzakia sortuta.

Jakin egizu batzuentzat ez dela diktadura amaitu. Eta antzina diktadurapean ziren batzuk gaur egun diktadore lanak egiten dabilzela. Beti be demokraziaren izenean.

Halan da be, ez ahaztu inoiz, Espainiako eta Frantziako estatuek euskal presoekin oinarrituko eskubiak errespetatu eta bete behar dabezela. Gogoan izan:

*zuen indarraren beharra dogula gure indarragaz batera. Zain dago ama, zain aita zain andre ta lagunak hator, hator Euskadira, hator, hator etxera.*

**ZURE AUKERAK ZABALDU!!!**

**IURRETA INSTITUTUA**  
HEZKUNTZA

**MATRIKULAZIOA**  
Uztailaren 5etik 11ra

Tel.: 94 466 88 00 • [www.iurreta-institutua.net](http://www.iurreta-institutua.net) • [014950aa@hezkuntza.net](mailto:014950aa@hezkuntza.net)